



ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net

Zorionak eta
Urte Berri on!

Hurrengo aldizkaria

2014ko urtarilaren 8an
egonen da etxeetan

2014ko abenduaren 11 | XXXIV. urtea | 628. zenbakia

Gehigarri berezia

Eguberriak → 25-33

BERTIZARANA → 16

Araztegi berria inauguratu
dute Legasan

HEZKUNTZA → 35

Bikaintasun aitortpena hiru
ikastetxerentzat

LEITZA → 36

Kale edo bale... Baliaketa!
lehiaketa abenduaren 26an

BAZTAN → 38

Donbassekin elkartasun
asteburua antolatu dute

Hiri eta herri haundietatik herri ttikietara



ERREPORTAJEA → 3-5

Bizitzeko bertze modu bat

ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Hiriak ito egiten zielako, lasaitasunaren gibelatik, herri ttikiak haurrak hazteko toki hobeak direla pentsatuta, aukera berrien bila... Arrazoi bategatik edo bertzeagatik hiri edo herri haundi bateko bizimodua alde batera utzi eta gure eskualdeko herri ttikietara etorri dira bizitzera

hainbat lagun. Irundik Lesakara, Erreteriatik Urdazubira edo Aranora, Gasteiz utzi eta Anizera eta Barañaindik Beintza-Labaienera etorri diren bikote eta lagunekin hitz egin du TTIPI-TTAPAK. Gustura daude gure artean, eta ez dira damutzen hartutako erabakiarekin.

**1.185 lagun
daude
langabezian**

Azaroan igo egin da langabe kopurua, Enplegu Bulegoaren arabera. Horietatik 594k ez dute prestaziorik jasotzen. → 19

ZOKKETAK → 43



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**ra edo
idatzi **info@ttipi.net**-era

Horra, horra, gure Olentzero...

Gutti gelditzen da Eguberrietarako, eta beraz, Olentzero eta Mari Domingiren bisita ere ate joka dugu. Herri gehienetan abenduaren 24an ibiliko dira kalejiran eta kantuan, haur eta gazteek Olentzero bizkar gainean dutela.

Saran, ordea, bi protagonistak lehenagotik eginen dute bisita, abenduaren 21ean.

Gainerakoan, **Lesakan**, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Olentzero eta Jaiotza lehiaketak eginen dituzte eta **Leitzan** balkoi, ganbera eta etxe atariak gisa guztietako Orantzarekin apainduak ikusiko ditugu.



DONEZTEBE LAISTER ERAIKITZEKO

ELIZAGIBELA KALEAN



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com

C.A.P. ZENTROA

HOMOLOGATUA
HASIERAKOA-JARRAIA
MERKANTZIAK
BIDAIARIAK



TRANSPORTISTA TITULUA

lortzeko
13. Ikastaroa hasiko dugu

Araudia aldatu baino lehen
azken aukera izanen duzu.
APROBETXATU!

Azterketa: MAIATZA bukaeran

Ikastaro intentsiboak:

- Asteburuetan 8 orduz
- Astegunez egunero 3 orduz

Klaseetara joanez gero, aprobatu
kopuru handia.

2014an **%82**ak **gainditu** zuen

Pintor Basiano, 5 (Iturrama) - IRUÑEA

T. 680 11 06 51 (Migeltxo)

948 26 13 15 (CAP zentroa)

GIZARTEA → HIRIETATIK HERRI TTIKIETARA

Bertzelako bizimodu baten bila

Gure eskualdeko herri ttikietan egin dute kabia hainbat hiritarrek

Arrazoi bategatik edo berteagatik hiri edo herri haundietako bizimodua utzi eta gure eskualdeko herri ttikiren batera etorri diren bortz familia eta lagunekin egon gara. Irundik Lesakara, Barañaindik Beintza-Labaienera, Erreteriatik Urdazubira, Aranora, Gasteiz utzi eta Anizera... Bakoitzak bere historia du kontatzeko.

G. PIKABEA

Sorterritik kanpo aurkitu dute euren gustuko toki. Hiri edo herri haundietako saltsarik ez

zuten nahi, eta txoriak bailiran hegan etorri ziren gure ingurura. Eta gure herrietako lasaitasunean egin dute kabia.



Arrazoi bategatik edo berteagatik etorri dira gurera: batzuk hiriak ito egiten zielako, bertzeak herriak haurrak hazteko toki hobeak direla pentsatuta, edo aukera berrien bila... Euskal Herriko bertze bazterretatik eta kanpotik etorritako aunitz dira gu-

re artean bizi direnak eta horietako batzuengana jo du TTIPI-TTAPAK: Sergio Sanchez eta Itziar Elisalt Irundik Lesakara etorri ziren, Iñigo Imaz Erreteriatik Urdazubira, Xabier Zabaleta eta Kristina Fernandez Legazpi eta Abanto-Zierbenakoak dira

baina Gasteizen bizitu ziren eta orain Anizen daude, Irune Izkue eta Aitor Pozo Barañain utzi eta Beintza-Labaienera etorri ziren eta sortzez Erretereriakoa den Pepi, berriz, Aranora etorri zen. Ez dira damutzen hartutako erabakiarekin.

Sergio SANCHEZ eta Itziar ELISALT | LESAKA

«Hasiera gogorra izan zen, baina orain ez ginateke Irunera bizitzera itzuliko»

«Kasualitate» bat tarteko etorri ziren Sergio eta Itziar Lesakara bizitzera. Irundarrak izanda, han hasi ziren pisu bila, baina egun batean egunkarian Lesakan eraikitzen ari ziren etxebizitzaren inguruan irakurri zuten: «planoak ikusi eta gero, aukera ona izan zitekeela pentsatu genuen». Lesaka «betidanik gustatu» izan zaien herria zenez, «zer-gatik ez probatu?», planteatu zuten.

Lehenagotik bazuten Lesakaren berri: «urtero sanferminetara etortzen ginen». Hortik aparte, «seme-alabak izan nahi genituen eta haiek haunditzeko leku ona izan zitekeela pentsatu genuen. Gainera, beti erakarri gaitu herriko bizimoduak: mendiak, tradizioak nola bizi diren, lasaitasuna eta gure kasuan euskaraz ikasteko aukera». Udaberrian etorri ziren Lesakara eta «herria oso polita» aurkitu zuten. «Hilabete hauetan jendea kalera ateratzen da eta herria bizirik dago». Negua ailegatu zenean hasi ziren komeriak: «kaleak hutsik gelditu ziren, lainoa sartu zen eta pertzepzioa aldatu zen. Lekua ez zen hain ideala. Urtaro honetan hirian aukera gehiago dituzu». Aitortu digutenez, «gezurra erranen genuke, momentu batean Irunera itzultzea ez genuela pentsatu erranez gero». Hasiera «hagitz gogorra» izan zela kontatu digute: «bistaz bi edo hiru pertsona bakarrik ezagutzen genituen eta leku guztietan bezala, lagun taldeak eginak zeuden. Guk herrian jarduerak egin nahi genituen, guretzat leku batean bizitzea ez delako lo egitera joatea bakarrik». Baina denborarekin dena sendatzen da: «poliki-poliki gauzak aldatzen hasi ziren, batez ere, seme zaharra jaio ondotik». Orain, argi dute «ez ginatekeela Irunera bizitzera itzuli-



NOR DITUGU?

- **Sorterrria:** Irun
- **Bizilekua:** Lesaka
- **Noiztik:** 2006tik.
- **Lanbideak:** delinearzailea eta kimikaria.
- **Familia:** bi seme.

ko, nahiz eta noizean behin hara joatea gustatu». Bikote irundarrarentzat «Lesaka leku perfektua da haurrak haunditzeko, batez ere haurtzaroan. Hemen askatasun gehiagorekin bizi daiteke. Ez daude hirian adina arrisku. Semeekin kalera ateratzen garenean, berdin da norra joan, beti aurkitzen dute norbait jolasteko». Herriko bizitza «askoz familiartekoagoa» dela diote.

Nahiz eta Irun ez dagoen urruti, «gure familia eta gaztako lagunak ez dira hemen bizi» eta horren falta sumatzen

omen dute: «ordu bat libre izanez gero, ez duzu nahiko denbora, adibidez, haurrak aitona-amonengana eramateko edo lagun batekin kaña bat hartzeko». Gainerakoan, ordea, «Lesakak bizitzeko behar duzun guztia» duela uste dute: «eskola, osasun-zentroa, musika eskola, denda, Kultur Etxea, kiroldegia... Zer gehiago behar dugu?». Hobetzekotan, garraio publikoa, «gaizki» dagoela aipatu baitigute. Lesakara bizitzeko erabakia hartu zutenean ingurukoek ez omen zieten deus erran, baina uste dute «pixka bat eroak geundela pentsatu zutela». Edozein kasutan, erabakia euren izan zen, eta eurek dira Lesakan segitu nahi dutenak «hagitz gustura» daudelako.

Xabier ZABALETA eta Kristina FERNANDEZ | ANIZ

«Arras kontent bizi gara euskal nortasuna hortzak erakutsiz defendatzen duen herri honetan»



«Xabier, eros ezazu pisutxo bat Iruñean, eta Iruñean ez bada, Elizondon behintzat, jaiotetxera itzultzean errezago salduko duzu eta». Horixe erraten omen zion Xabierri bere amak. Baina ez, Kristina eta Xabierren nahia ez zen hori. Jaiotzez ez dira hiritarak, baina badakite zer den hiriko bizimodua, Gasteizen bizitu baitziren: «ikasketak Gasteizen egin eta bertan genuen lana, euskaltegia». Dena den, diotenez, «gure bihotzek inguruko herrixketara jotzen zuten. Argi genuen Gasteizetik itoko gintuela». Eta hala etorri zen Nafarroatik deia. «Nafarroako irakasle zerrendatik lanerako deitu eta Baztanera etortze-

ko aukera eskaini zidaten [Xabierri]. Urtea bertan pasatzeko etxe bila hasi ziren, eta aitortu digutenez, «Elizondo Madril txiki irudituta, herriz-herriz galdezkahi eta Anizen suertatu zitzaigun habia». Ikusi zutenerako gustatu zitzairen, lehen inpresioa «izugarria» izan zela baitiote: «Anizera heldu eta aparkatu orduko konturatu ginen bizitzeko paraje ederra izan zitekeela. Etxeko leihoa zabaldu eta Urlegi, Aizkoa, Udi eta Abartan begibistan». Lehendik ba omen zuten Baztanen berri: «batetik,

inguru euskalduna; bertetik, baserriak, bordak, errekastoak, iratze metak, bagadiak, gaztainadiak, aziendak larrean... Arkadia zoriontsua», aipatu digute. Ez dira damutzen egindako aukerarekin eta egokitzeko arazorik ere ez omen dute izan: «Anizera etorri eta hamar egunetara herriko bestak izan ziren. Aniztarrek Baztan Zopetara gonbidatu eta bat-batean egokitu ginen». Are gehiago, nabarmendu digutenez,

NOR DITUGU?

- **Sorterria:** Legazpi eta Abanto-Zierbena.
- **Bizilekua:** Aniz
- **Noiztik:** 2002-2005.
- **Lanbideak:** biak irakasleak.
- **Familia:** bi seme-alaba.

zuten etxea, «aniztarrek izugarri lagunduta»: «gure etxeko obran Anizko traktore guztiak ibili ziren jo eta su lanean». Baratzeara ere ba omen dute, eta dortoka dute etxeko animalia bakarra. Ez dira damutu egindako aukerarekin eta gainera, Anizen bizitzeari ez diote alde ona bertzerik ikusten: «denak abantailak dira», erran digute. Esker oneko hitzak baino ez dituzte herritarrentzat: «arras harrera ona jaso dugu. Urteotan guztietan aukera franko izan dugu hori egiaztatzeko. Zinez, milesker aniztarrok».

Pepi | ARANO

«Astakeria egin dudala esan izan didate baina nik nahi dudana egin dut eta pozik nago»



«Nire etxea txikia zen eta haundiagoa nahi nuen bizitzeko. Pox-polo kaxa hartara portuko zikina ere etortzen zen, eta nik pakea nahi nuen, lasaitasuna, kotxerik eta ezer gabe». Hori izan zen Lezo utzi eta Aranorako bidea hartzeko lehen arrazoia eta bestea, «nik mendira joan nahi nuela. Semea 'nik piku azpian hil behar diat' esaten nion», kontatu digu umoretsu. Hala, semea, alaba, biloba eta amarekin etorri zen duela sei urte Aranora eta argi utzi digu «denak konforme» etorri zirela, «ez zidaten inongo eragozpenik jarri». Gaur egun, semea eta bilobarekin bizi da, alaba etxetik kanpo bizi delako eta ama

saitasuna, txorien kantuak, kotxerik ez... Oso leku polita da». Eta bizilagunak ere «zoragarriak» omen ditu. Herrian harrera ona jaso duela dio, baina bereziki nabarmendu du bizilagunen harrera, «etorri ginenetik jaso dugun atentzioa izugarria izan da». Onartu digu «gutxi» joaten dela herrira. Are gehiago, «niregatik balitz ez nintzateke etxetik aterako», dio irribarez. Baina semeak ateratzeko esaten omen dio eta

NOR DUGU?

- **Sorterria:** Errearteria.
- **Bizilekua:** Arano.
- **Noiztik:** 2008tik.
- **Lanbidea:** baserriko lanak.
- **Familia:** semea eta bilobarekin bizi da.

halakoetan aprobetxatzen du erostaketak egiteko: «kotxea kargatu eta kongeladorean sartzen ditut». Baserrian bakarrik egonda ere, ez dela asperten esan digu. Denbora zertan pasatua izaten

baitu: «baratzea egiten dut eta txerria, ahuntzak, oiloak... ere baditut. Primeran nago. Kalean aspertuta nengoen». Pepik aitortu digu, Aranora bizitzera etorri behar zuela adierazi zuenengan, ingurukoek «urruti nindola» esaten ziotela. «Lezo utzi eta mendi puntara joanda, astakeria egin dudala» ere esan izan omen diote. Baina Pepik garbi du, «nik nahi dudana egin dut eta nahi dudana lortu dut». Pozik dago. Bere hitzak dira horren lekuko, eta bertan segitzeko duen gogoia ere bai.

Iñigo IMAZ | URDAZUBI

«Hasieratik etxean bezala sentitu naiz eta Urdazubi bere horretan mantentzea nahiko nuke»



«Espazio ttikia baina berezitasunez josia». Horrela mintzatu zaigu Iñigo Urdazubiz. Kontatu digunez, doktore-tesia egiten hasi zenean, bi helburu zituen: «batetik, Nafarroako herri txiki batean bizitzea, Hendaian bizitzeaz aspertuta bainengoen, eta bestetik, muga inguruko gaiak ikertzea». Eta haratx, Urdazubin akitu du. Hendaian bizi eta Irunen lan egiten zuenean, muga arteko harremanak «arreta piztu» omen zion

eta halaxe ezagutu zuen Urdazubi: «mugako herriak ezagutzen hasi nintzen eta Dantxarinearekin egin nuen topo». Berehala «Urdazubirekin maitemindu nintzen». 2007an, lehendabizikoz

Dantxarinea ikusi zuenean «zer munstro da basoaren erdian dagoen hau!», pentsatu zuela dio. Baina aitortu digu «benten inguruan sorturiko munduak» interesa piztu ziola eta Urdazubi leku «atsegina» iruditut zitzaiola: «herri txikiaren abantaila guztiekin eta hiriaren zerbitzu eta erraztasun gehienekin. Isolaturik dirudien herrixka, baina era berean, geografikoki oso ondo kokatua». 2002az geroztik leku diferentetant bizi izan da Iñigo eta Urdazubira etorritakoan, bere hasierako asmoa 2016ra arte gelditzea

omen zen, baina kontatu digunez, «uste dut jende gehienari gertatzen zaion moduan, bertan geldituko naizela doktore-tesia amaitu eta hortik aurrera ere». Izan ere, gustura baitago eta urdazubiarrek hasieratik «etxean bezala sentiarazi naute-la» dio. Gaineratu digunez, «horen adibide dira 2006tik ireki gabe nituen kutxa batzuk behingoz ireki ditudala. Niretzako hori etxean naizenaren seinale gar-bia da».

NOR DUGU?

- **Sorterria:** Erreterria.
- **Bizilekua:** Urdazubi.
- **Noiztik:** 2013tik.
- **Lanbideak:** Historialaria, artxibalaria, doktore-tesia egiten.
- **Familia:** Bakarrik.

Halere, onartu digu «familia eta betiko lagun-nen falta» somatzen duela. Hortik aparte, «desabantaila gutxi» ikusten dizkio herriari. Erran digunez, Urdazubitik batez ere «jendea eta kontatzen dizkidaten istorioak» gustatzen zaizkio, eta «bizi kalitatea, mentalitatea eta noski, ingurugiroa» baloratzen omen ditu. Bereziki eskertu nahi du herrian egin dioten harre-ra, baina badu eskaera bat ere: «Urdazubi bere horretan mantentzea nahiko nuke, aldatzen hasiko balitz berezitasun hori galduko bailuke. Orain arte, neurri batean, herri txikiak bere izaera mantentzea lortu du, nahiz eta Dantxarineko gune komertzialak baduen bere pisua herrian. Gauzak ez dira gehiegi nahi eta hori ona da».

Irene IZKUE eta Aitor POZO | BEINTZA-LABAIEN

«Iruñerrian ez genuen gauzak egiteko aukerarik eta hemen fronte asko ditugu irekita»



Mutiko kozkorra zela ezagutu zuen Aitorrek Beintza-Labaien, aterpera etorri zenean. Eta hara non, urte batzuren buruan, herri hori aukeratu dute bizileku berak eta Irene neska-lagunak. Errentan hartua duten etxea «kasualitatez» ezagutu zuten eta hilabete batzuek Beintza-Labaien eta Barañain artean joan-etorrian ibili omen ziren. «Poliki-poliki hemengo jendea, ingurua eta bizimodua ezagutu genituen eta hemen gelditzea erabaki genuen». Duela bi urte izan zen hori. Hasieratik «oso ongi» moldatu direla aitortu digute, «baita bizilagunekin ere» eta «aldaketa gutxienez» izan dela diote. Are gehiago, «hiritik ez dugu ezerren faltarik sumatzen», esan digute: «hirira ia ez gara ezertara joaten. Lagunak eta familia etortzen zaizkigu». Labaien bizitzeari abantaila «dezen-te» ikusten dizkiete eta denaren gainetik «bizi kalitatea» nabarmendu dute. Gisa berean, «Iruñean ez dagoen gauzak antolatze-ko askatasuna, lasaitasuna, aparkatzeko arazorik ez...» kontatu dizkigute. Gabeziaren bat aipatzekotan, «gazteak mugitzea eta beraien artean zerbitu antolatzea». Iruñerriko gazteekin alderatuz, beste desberdin-

tasun bat ere ikusi dute: «hemengoek hogei buelta ematen dizkigute mendiko kontuetan, animaliekin, mekanikan... Alde horretatik, gu baino aurreratuagoak dira. Gu mukizu batzuk gara». Orain, ordea, ezin esan baserriko martxa ezagutzen ez dutenik. Izan ere, sei-zazpi arrazatako oiloak dituzte etxean, txerriak, aharia eta ardiak, txakurra eta katuak. Etxeako oiloekin, azien-dak ikustera egiten dizkieten bi-sitekin eta herria-

NOR DITUGU?

- **Sorterria:** Barañain.
- **Bizilekua:** Beintza-Labaien.
- **Noiztik:** 2012tik.
- **Lanbideak:** Etxe-ko eta herriko lanak.
- **Familia:** Bikotea.

rentzat lan eginez ateratzen dute bizimodua. Trukera-ko eta lanean laguntzeko ere prest izaten dira: «ezin dutenei eta zaharrei laguntzea gustuko dugu: sagarrak biltzea, belar-rrak egitea...». Ordainetan herriarrek etxe-ko atea irekitzen omen diete eta horrek sekulako poza sortzen die: «hori ezin da ordaindu». Agerikoa da gustura daudela eta familiak eta lagunak ere berdin pentsatzen dutela diote: «hona gentozela eta, hasieran eroak geundela esan ziguten. Baina poztu ere egin ziren han ez gueilako ezer egiten, dirua gastatu eta ezer gutxi. Hemen aziendekin, baratzarekin... zerbitu ateratzen dugu. Iruñerrian ez genuen gauzak egiteko aukerarik, eta hemen fronte asko ditugu irekita».



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Inbidia edo bekaizkeria

Hitz soil bat baino gehiago. Bere soiltasunean ondorio izugarriak eragin ditzakeen gaitz sendaezina? Historian zehar izandako hainbat gertakari ilunen jatorria. Inbidia edo bekaizkeria izan da haserreak, ezinikusiak, gerrak, ... zorigaitza eta halako txarkerien sortzailea.

Haur garaiko inbidiak, gehienak bederen, unean unekoak izaten dira. Dena den adinean goiti goazen heinean inbidia edo bekaizkeria areagotzen da, autoelikaduraz. Inbidia edo bekaizkeria gehiegi elikatzerakoan inbidia erikorra bilakatzen da eta jada gibelat bueltarik ez da izaten.

Euskal Herrian ere bekaizkeria arras zabalduta dago eta zoritxarrez gauza aunitzetan aitzinet egitea galarazi du. Inbidiak, bekaizkeriak gure ingurukoek egindako gauza onak baloratu eta haietaz ikastea ekidin du.

«Bekaizkeriak, inbidiak gure ingurukoek egindako gauza onak baloratu eta haietaz ikastea ekidin du»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ez ukittu niri pilotak

Pilotari seboa kentzerakoan grazia ere kentzen zaiola kexu agertu da oraingoan Oinatz. Lehenago, balinak bezain biziak zirela aditukatu dugu, palan aritzeko modukoak, baita patatak bezain motelak... Piloten afera ez dela oraingoa eta iskanbila zer den ikasteko, 1681ean Iturengo plazan arantzarek pilota busti eta gartzaindarren kontra aritu zirenekoa leitu Tiburtzio Arraztoaren liburuan.

Nabarmentzekoak



Xanta SOUZA
Errekor berria txingekin

Brasilen jaiotako lesakarrak lehendik berak zeukan Euskal Herriko errekorra hobetu zuen herriko ferietan. 50 plaza eta 17 metro (1.417 metro) egin zituen 25na kiloko txingekin.



Saioa ALKAIZA
Mariano Izetan txapeldun

Mariano Izena bertso sariketako seigarren edizioan garaile suertatu zen Iruñeko bertsolaria Eli-zondon. Maialen Lopez lesakarra bigarren izan zen eta Oier Amiano elizondarra hirugarren.



Luis LUJANBIO
Goizuetako sifoi-egilea

Garai batean sifoi eta gaseosa egiteko etxean erabiltzen zuten tresneria atera zuen plazara eta bere funtzionamendua erakutsi zuen Goizuetako azinda feria egunean.

Aztera begira → 2004-XII-23 / TTPI-TTAPA 388 zk.



Juan Zelaia saiakera saria Migel Mari Elosegiren hartzentzat

Migel Mari Elosegile Leitzako biologo eta basozainak (eta bertsolariak) Juan Zelaia saiakera saria irabazi zuen duela hamar urte, *Hartzak Pirinioetan XXI. mendean* idazlanarekin. Animalia honek izan duen eta izan beharko lukeen garrantziaz ohartu zenean piztu zitzaion hartzekiko interesa Elosegiri: «Gizarteak hartza kontserbatu nahi badu Pirinioan bizileku egokia dauka oraindik» zioen leitzarrak. Bere sentimenduaren aldeko artzainik ba ote den galdetzerakoan, «hartza berezia izan da artzaintzat eta inguruko bizilagunentzat. Dena dela, eta normala denez, azientak dira garrantzitsuena abeltzaintzat» erantzun zuen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitzua	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Erantzukizuna eta ardura politikoa... Sina dezatela!

Juainas PAUL ARZAK

Dagoen giroa dagoela zerbait polita, animosoa kontatzea gustatuko litzaidake. Erraza balitz! Ez dut modurik harrapatzen, ordea, gaur ilunduta ernatu izan banintz bezala bainago. Hobe esana: aspaldi zikinkeria besterik ez da usaintzen, aditzen eta ikusten... hortaz, nola alai egin ohetik salto?

Kezka bat dut. Erantzukizunari dagokio. Erantzukizuna eta ardura politikoa, zehazkiago, nolabait elkar lotuak izan beharko zirelako eta, benetan, praktikan, ez ezagunak balira moduan ditugu martxan. Horrela ikusten dut nik, bederen. Arduradun batzuk hartzen dituzten erabakiak direla direlarik, gaizki funtzionaturik ere, maltzurkeriaz jantzirik edota gabe izanda,... Hor bukatzen da dena. Arrakasta, porrota, botoen gorabeherak,... Baino hau ezin du dena izan.

Sendagile-zirujau funtzionatze moduarekin parekatu beharko zen politikariena eta beste teknika-ri batzuen... Osasunbidekoek garbi dute: zu zeu zara zure gorputzaren arduradun teorikoa. Zure baimena behar da edozein interbentziarako eta erantzukizuna zuretzat gordeko da. Egia da maiz ez dugula sinatzen dugunaren erdia ulertu, baino... Preferenteena bezala! Sinarazi. Horrela ez balukete eginen ikaragarritzko jaleotan sartuko litzateke, kalterik balego euren ardurara osokoa izanen zela.

Esa urtegiko magaletan berriro arrakalak. Handiak, txikiak, garrantzi gabekoak... Ikuspuntu desberdinen afera? Interesak? Geologiak ez duela gehiagorako ematen? Hori ez da dena.

Geologiak ahal duena emanda, batzuk arriskua ikusten dute, ikaragarria. Jakinen gainean jarri gaituzte. Beste batzuk, ordea, agintean dauden arduradun tekniko eta politikariak, babes-eremua handitu eta ordaindu behar dena areagotu dute, hori bai, arriskua ukatzen dute, den dena ziur omen da... Sina dezatela. Kalteren bat gertatuko balitz, ardura euren izanda, izen eta abizen propioak duen jendea izanik, ordainduko dutela sinatu arazi behar zaie. Besteen bizia arriskuan ez dutela jartzen hain sinetsiak baldin badaude, garantizatzen duen agiri bat sina dezatela; biztanle batzuen iritzien aurka urtegiaren lanetan jarraitzeko, inposatzeko borondatea baldin badute, uste osoa, erantzukizuna har dezatela, sinatuz.

«Besteen bizia
arriskuan ez dutela
jartzen hain
sinetsiak baldin
badaude, agiri bat
sina dezatela;
biztanle batzuen
iritzien aurka
urtegiaren lanetan
jarraitzeko
borondatea baldin
badute,
erantzukizuna har
dezatela, sinatuz»

Abenduko jatorduak eta kuñatuen kasta

Luis GARDE

Hondarreko TTIPI-TTAPAREN zenbakien iritzi zabeteetan osasunaren arloan zenbait aholku ematen direla ikusita, nik ere nire osasuna zaintzeko ekarpen xumea egitea erabaki dut. Dena ez da izan behar politika nazkagarria edota bizitza buruzko filosofokeria mingotsak.

Abenduan gaudela kontuan hartuta, eta hilabete honetan, eguberriak direla, zubiak eta akueduktoak direla, familiarekin denbora aunitz ematen dugunez, bazkariz bazkari eta afariz afari, honat doazkizue egoera zailari aurre egiteko aholku praktikoko batzuk. Oraingoan ez jan-edanean egiten ditugun gehiegikeriei buruz, baizik eta jatordu horiek senide politikoekin konpartitzeak ekartzen ahal dizkigun kalte larriei buruz.

-Zuk saludatu orduko, zure kuñatuak eskua tripa gainean jartzen badizu, algaraka erranez "Ño, kuñatu, sasoian zaudel!", ez hartu gaizki, urte honetan hiru-lau kilotxo irabazi duzula egia bada ere.

-Kuñatuak beti ekartzen du berak prestatu duen plater bat, dela arrainzopa, dela bildotsa, dela tarta goxo bat... sukaldari trebatua delako.

Senide guztiek haren plateraren meritu handia aitortuko diote, zure emaztetik eta zure amatik hasita. Zure mendekua (mendeku eskasa, baina besterik ez dago eskura) hark maisuki prestatutako platera ez jatea izanen da. Ezta begiratu ere. "Zaindu behar naiz eta..."

-Gai guztietan solaskide aparta baldin bada, eta senide gehienek ahoa irekita begiratzen badiote telebistako iritzi-lider baten aitzinean balira bezala, egiozu boikota: futbolarekin hasten bada, zuk aldatu politikara. Gero, *Podemosekin* berotzen hasten denean, zuk komentatu bigarren kanalean ikusi duzun azken dokumentala. Eta kamera geldoan kontatu.

-Une batez isiltzen bada (ze zaila den hori!), aprobetxatu etxebizitzaren oraingo prezio merke-merkeaz solasteko. Kuñatua oraindik kristoren hipoteka ordaintzen ari da, burbuilaren leherketak bete-betean harrapatu baitzuen, eta gai horrek senetik ateratzen dio.

-Sukaldera baldin badoa *gin-tonic* batzuk prestatze aldera (horretan ere aditua baita), zutitu eta zure etxera ihes egin, gauean *alkoholemia-kontrolak* jarri behar dituztelako aitzakiarekin.

-Bukatzeko, izan moderatua zure gorrotoan: kuñatuarentzat, zu ere kuñatuen kastaren kide bat baitzara.

«Familiarekin
denbora aunitz
ematen dugunez,
bazkariz bazkari
eta afariz afari
honat doazkizue
egoera zailari aurre
egiteko aholku
praktiko batzuk»

Irakurleak mintzo

UPNren
demokraziaXanti **BEGINISTAIN MADOTZ**
(Auritz)

Ez dirudi UPNren barruan egoera oso lasaia denik. Eta hori dela eta, gaur aztertu nahi dut pixka bat nola ikusten den kanpotik UPN alderdi politikoa- rendemokrazia. Haste-ko esan beharra dago, UPNek gobernatzen egonik ere, ematen du behera egin duela nabarmenki azken urteotan. Lehendabizi alderdia bi puskatan zatitu zen, orain, inkesten araberako, badirudi boto de- zente galdu behar di- tuela, eta azkenik, hu- rrengo hauteskondee- tarako lau zerrendabu- ru edo lau hautagai aur- keztu dira; ikusi behar- ko da nor aukeratzeko duten. Baina, hain zu-

zen ere, horixe azpima- rratu nahi nuen, alegia, UPNren barneko hau- tagaien aukeraketaren kontu hori. Dirudenez, orain dela gutxi arte, UPNn hautagaiak au- keratzen omen zituzten zazpi bat pertsonak, edo, horixe da behin- tzat nik hedabideetan ulertu dudana. Geroa- go, barne istiluak zire- la-eta, ulertua daukat orain 200 bat perso- nak, gutxi gorabehera, aukeratzeko dituztela hautagaiak. Baina, ha- la eta guztiz ere, UPN barruan urak ez omen daude oso bare: huren- go hauteskundeetara- ko lau zerrendaburu aur- keztu baitira, batek es- katu dio Yolanda Barci- na andreari hauteskun- de primarioak egiteko, 4.000 afiliatuek bozka dezaten aukeraketan, baina Barcinak esan dio ezetz, (hori bai, betiere

bere irribarrerik ez tiena- rekin) partida erdian ezin direla aldatu joko- arau- ak; beste hautagaiak es- katu omen diote auke- raketa epea luzatzeko, gaia lasaitasun handia- goarekin tratatzeko, bai- na hori ere ez die onar- tu alderdiburuak, eran- tzun die esanez, lehe- nik eta behin estatutu- ak zorrozki bete behar direla.

Nik uste dut honetan guztian ere, Barcina an- drea, gero eta antz han- diagoa hartzen ari dela Mariano Rajoy, bere maisu kutunarena, hau da, politika oinarritzea EZ hitzean: EZ, EZ eta EZ!!! Hala eta guztiz ere, Barcinak orain dela gu- txi, hedabideetan azal- du zuen, UPN alderdi politikoa- ren funtziona- mendua oso demokra- tikoa dela, eta gainera, eredugarria gainerako alderdi politiko guztien-

tzat. A zer-nolako mo- du ezberdinak ditugun demokrazia ulertzeko Barcina andrearekin eta be- ste pertsona batzuek e?, izugarria, ikaraga- rria, itzela!!! Baldin eta hurrengo hauteskun- deetan Barcinak hartzen badu egundoko mutu- rrekoa, nik uste dut esan beharko dugula, jaso duela ongi merezita.

Eta bukatzeko, pa- rentesi txiki bat: UPN txistulariekin ere sartu baita, nola ez! Euskal Herriko Txistulari Elkar- teari esan baitio, Nafa- rroako ordezkariak di- ru-laguntza jaso nahi baldin badu, izena al- datu beharko duela, konparaziora, Nafarroa- ko Txistulari elkarte- a edo antzeko zerbait. Da- goeneko harrigarria ere ez zaigu egiten.

Urte Berri On!

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Esku artean duzun aldizkari hau izanen da 2014 urteko azken TTIPI-TTAPA. Hurrengo alea 2015eko urtarrilaren 8an aterako da, urte berria- rekin batera. Beraz, bi astera ez, lau astera ja- soko duzu 629. zenba- kiaz eramanen duen al- dizkaria etxean. Miles- ker urte osoan zuen etxetako ateak zabaltu dizkiguzuelako eta hel- du den urtean ere ho- rretan segitu nahiko ge- nuke.

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta webgunea egitea posible egiten dugun guzian partetik ongi bu- ka dezazuela urtea eta hobe hasi 2015a. Elka- rren berri izaten segi de- zagula! Zorionak eta Ur- te Berri On!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPA eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

K
Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

Arturo

Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria

Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: **948 63 10 27** - Fax: **948 62 52 11**
tabernabera@gmail.com

Mari Cruz

LENTZERIA BOUTIQUE DONEZTEBE

Prentsatik bildutakoak



«Ongi pasatzen dut lanean eta jendea sufritzen ikusteak ere ez dit penarik ematen. Pertsona bat bere muga non dagoen, hotza nola aguanta-tzen duen ikustera datorrenean, ez dut gizajoa erraten. Izan ere, horretara etorri da. Ez da inor behar-tuta etortzen. Ramboak direla era-kutsi nahi dute, izanen dute hori erakusteko aukera bada!».

Julian IANTZI

ETBko aurkezle lesakarra
D. NOTICIAS 2014.11.30



«Orduan Goizuetan izango ziren dozena bat taberna eta uda partean eta batez ere festak etortzen zirene-an lan handia izaten zen. Goizean partiketa egiten genuen, baina gero behar bazuten azkar deitzen zuten eramateko (...) Gero etxetara eramaten genuen noizbait, baina normalean gure etxera etortzen ziren, enkarguak egin bide-nabarrean».

Luis LUJANBIO

Goizuetako sifoi-egilea
D. VASCO 2014.11.28

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Elizondon bizi den gazte bat naiz.

Zein afizio dituzu?

Ahal dutelarik korrika egitera gatea.

Nondik datorkizu afizioa?

Betitik izan dut gustuko. Lehena-go futboleko ere aritzen nintzen baina entrenamenduetara joateko denborarik ez nuelako utzi nuen.

Korrikarako tartea ateratzeko ere komerriak?

Hiru haur ditugu eta puzzle modu-ko bat osatu behar izaten da. Ahal dena eta ahal denean egiten da.

Urteari adio korrika erranen dio-zu?

Bai aurten ere aterako naiz San Silbestre lasterketan. Parte hartu eta antolakuntza lanetan ere aritzen gara 6 laguneko taldea.

Orain arteko

lasterketetatik

gustukoena

zein duzu?

Behobia-Donostia eta Orreaga-Zubiri artekoak oso politak dira. Gan den urtean, Donostiako maratokia egin nuen eta kosta zitzaidan arren, berezia izan zen bukaerako sen-tsazioa, 42 kilometroak osatuta.

Baduzu burutan egin nahiko ze-nukeen lasterketa bat?

Heldu den urtean, uda partean, Nafarroa Oinezi lotutako mendi lasterketa bat antolatu nahi dute-la entzun dut eta gogoz hartuko dut parte hor. Mendian ez naiz ibil-tzen normalean, baina erronka po-lita izango da eta gainera berezia Baztanen izango delako.

Eguberrizalea zara?

Bai, familian ospatzen ditugu. Baz-karia hemen, bazkaria han... eta haurrekin alde batera eta beste-ra ibiltzeko tartea ere ateratzen dugu. .

Olentzerori gutuna idatziz diozue?

Pentsatua dugu zer eskatu, orain idaztea bakarrik falta zaigu.

Urte berrirako eskari-ren bat?

Ongi dagoen guz-tiak halaxe segi-tzea.

Amets bat?

Familia eta lagunak ongi ego-tea.



Iñaki TELLETXEA → Elizondoko gaztea



Gabonetako
deskontu bereziak
eguzkitako betaurrekoetan

%20 %30 %40

abenduaren 9tik
urtarrilaren 5era

Ostargi optika

Bea Artola Ferran Optiko-optometrista kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

BORTZIRIAK

GIZARTEA → URTARRILAREN 4AN AURKEZPENA

Amatasun eta aitatasunerako prestatzeko lan taldea sortu da

Lesakako Harriondoan egingen dute aurkezpene eta gaiarekin lotuak dauden eskualdeko komertzioek ere parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Bikoteari haurdunaldian, erditzean eta erditze ondorenean laguntza eta sustengua emateko helburuarekin lan taldea osatu da Bortzirietan, amatasun eta

aitatasunerako prozesuan jasaten diren aldaketa fisiko, emozional eta mentalen aitzinean ongizatea bideratuz, hainbat ikuspuntu jorratuta. Urtarrilaren 4an, igandez, 15:30etik 18:30era Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko liburutegian lan-taldea eta bere lana ezagutze-emanen dute. Bertan gai honekin lotuak dauden eskualdeko zenbait denda eta komertzio egonen dira euren produktuak erakutsi eta saltzeko. Ez da sarrerarik kobratuko. Haurrentzat ludoketa zerbitzua ere izanen da eta aurpegiak margotzeko ere aukera eskainiko zaie.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendira Ekimenarekin bat egin du Berako Kaxerna Gaztetxeak

Mendira ekimenarekin bat eginez, Berako Kaxerna gaztetxetik mendi ateraldia egin zen azaroaren 23an. Euskal preso politiko eta iheslariak pairatzen dituzten eskubideen urraketekin bukatzeko, aldarrikapen martxa izan zen. Gaztetxetik aipatu dutenez, «Larun inguruko bidaxka, belardi, malda eta zuhaitzek gure aldarrikapenaren testigu izan ziren. Euskal preso eta iheslariak etxera lelopean, giro ezinhobean pasa genuen eguna!». Yasolan lagunartean bazkalduz akautu zuten aldarrikapen eguna.

SOLASALDIA

Umeen maitasun beharra gaiari buruzko solasaldia eskainiko du Carlos Gonzalez pediatriak urtarrilaren 30ean arratsaldeko 6etan Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Sarrerak salgai daude dagoeneko Lesakako Dasya zentruan, Xagu liburutegian eta Oreka belarden-

Ba al zenekien

Bortzirietako bertso eskolak antolatutako taldekako txapelketaren 15. edizioa abenduaren 27an jokatu du Lesakako ostatueta. Bera, Lesaka, Baztan eta Malerreka bertsolariak ariko dira, hiruko taldetan. Bertze urteetan bezala, Kotto Saria eskainiko zaio bertso onena egiten duenari.

dan, Berako Haritza belardendari eta Doneztebeko Kimetz belarden-

dan (15 euro abenduaren 31 arte eta 18 euro ondotik).

EYSKALDVNA
OSTATV JATETXEA

URTE ZAHARREKO AFARIA

Urdalazpiko iberikoa
Foie mi-cuit bloka
Onddo-krepeak
Otarrairnskak plantxan

Limoi-sorbetea vodkaarekin

Idi-entrekota gari-zainzuri sortarekin

Tarta izozkiarekin

Ardoak: Arabako Errioxako ardo beltz
onduak: San Martin de Unxeko ardo gorriak;
Rueda ardo zuria; Brut Nature 1882 cava.

Kafea

Bidasoa 5, BERA • T. 948 630 392 • 948 630 907

Garbi ogi & coffee
CAFETERIA - CATERING

• Uteberri egunean irekia goizez •

Iturilandeta, 6 • BERA • 948 625 673

JATONE - GOZOTEGIA

948 630 786
Altzale, 19 • BERA

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

SMAZIZIOR
edariak

T.F. 948 631 557
Nafarroa, Ziobi, 3 ALKAIAGA
egon: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

Eguberrien inguruan ekitaldi ugari prestatu dituzte aurten ere

Musika eskolako entzunaldiak eta kontzertua eta Uxanekoen antzezlanak aipagarrienak

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako datak gainean ditugu eta horren inguruan, hainbat kultur ekitaldi ere prestatu dituzte.

Errate baterako, Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak Eguberrietako kontzertua eskainiko du abenduaren 17an, 18:00etan Kultur Etxean, baina aitzinetik, musika eskolan bertan trikitixa eta akordeoi entzunaldia (abenduaren 12an, 18:00etan) eta piano eta teklatu entzunaldia (abenduaren 16an, 17:30ean) antolatuta dituzte. Abendua-

ren 27an, Bera kantari ere aterako da 19:00etan Illekuetatik.

Abenduaren 19an, ortziral arratsko 8etan *Patxi, Alias Fraxku* antzezlan eskainiko dute Aspaceko Uxane Zentroko ikasleek Kultur Etxean.

Abenduaren 24an, Olentzero jauntsiko da 17:00etan Herriko Etxeko Plazara eta Urtezharen egunean, 15:00etan Glin-Glan eta 18:00etan Diostesalbea ibiliko da herrietako karriketan barrena.

HELDUENTZAKO IRAKASKUNTZA ZERBITZUA

Bertze aldetik, heldu den ikasturtetik aitzine- ra Baztan-Bidasoaldean eskaini nahi duten helduentzako irakas- kuntza zerbitzuari bu- ruzko Bortzirietako ba- tzar informatiboa aben- duaren 18an, ortzegun



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatza eta Musika Bandaren kalejira Santa Zezilia egunean

Zezilia Eguna elkarrekin ospatu zuten Berako Abesbatzak eta Musika Bandak. Musikarien eguna azaroaren 22an baldin bazen ere, bezperan egin zuten eki- mena elkarrekin. Pintxo potea aprobetxatuz, Altxateko ostatuetan barna ibili ziren. Batzuetan Igor Telletxeak zuzendutako Banda bakarrik aritu zen, eta ber- din Fatima Gonzalezek gidatutako abesbatza ere. Baina pare bat kan- ta elkarrekin ere kantatu zituzten. Auzoan hasi eta Lixoia, Katakua eta Bidaxkan barna ibili ondotik, afaldu ere elkarrekin egin zuten Lixoian.



arratsaldeko 7etan egi- nen da Beralandetan.

Toki Onako ikasbidairako zozketa

Ikasbidairako dirua lortzeko, Toki-onako laugarren mailako ikas- leek saski bat egin du- te. Saskiaren zozketa

Ba al zenekien...

Behobia kirol elkarteak abenduaren 27-28an eta urtarrilaren 3-4an Irungo Artaleku kiroldegian hirugarren urtez antolatu duen areto-futboleko Eguberrietako Torneo benefikoaren irabaziak Enaitzen alde izanen direla

egin da, eta hau da zen- baki irabazlea: 1679. Txartel sariduna dau- kan pertsonak, telefo- no zenbaki honetara

deitu behar du: 948625000. Telefono zenbaki honetara dei- tzeko epea urtarrilaren 31n bukatzen da.

Kotoi
Kortinak
Estoreak
Etxerako ehungintza
eta osagarriak
Bidasoa karrika 14 · 31780 BERA
T./F. 948 631 660

2014ko Urte Zahar Gaueko Menua
Gujuelo JD urdiazpiko iberikoa
Txangurnuz betetako krepeak
salsa amerikarrarekin
Legatza saltsa berdean, txirlekin
Idi-azpizuna chip patata, piper berde
eta foie saltsarekin
Etxeko kremazko tututxoak, txokolata
bero eta limoi-izozkiarekin
Eguberrietako gozokiak
Mahatsak, kotilloi poltsa, ura, ardoa, cave,
kafes, infusioa eta likore kopa barne
Bodegas Irache eta Codorniu
Prezioa: **70€** BEZ barne
Foruen plaza · BERA · T. 948 625 542 · T. 948 62 55 40
www.hotelchirrit.com

BAR Botxo
OSTATUA
Zalain · BERA · 948 630 052

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

LESAKA

GIZARTEA → URRIAREN 3AN ONARTU ZEN

Euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan jarri du Udalak

Lan hizkuntza euskara izatea da helburu nagusia

Aitor AROTZENA

Euskararen erabilera plana onartu zuen udalak urriaren 3ko osoko bilkuran eta jarraipen batzordea izendatu ondoren, plana martxan jarri da. Horretarako, herritarrei informazioa bidali zaie, gutun baten eta bando baten bitartez.

Idatzi horretan ageri denez, Herriko Etxea Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide da, Euskal Herriko bertze 71 udalekin batera. «UEMAko kide garen udalek hizkuntza politika aurrerakoiak sostengatzen ditugu, gure udalerrietako egoera soziolinguistikoa (biztanlegoaren %70 baino gehiago euskalduna) aintzat hartuta», diote idatzian.

Izan ere, udalerrri euskaldunak «ezinbestekoak gara gure hizkuntza-berreskurapenean. Euskararen arnasmuneak dira eta, bertan, belaunaldiz belaunaldi euskara bere bizitasun osoarekin transmititu da. Etorkizunean ere horrela izaten jarraitzea nahi badugu, arnasmu-

neen izaerari behar adinako garrantzia aitortu behar diegu, eta guri dagokigunean, hizkuntza politika aurrerakoiak bultzatu».

Hori dela eta, Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plan berria abiatu dute. Helburu nagusiak, «udalaren lan hizkuntza euskara izatea, erakunde publikoekin ditugun harremanak euskaraz izatea eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea» dira, beti ere, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Herritarrek ere euskararen erabilaren normalizazio prozesuan ezinbertzekoak direnez, «zure egunerokoa egin beti euskaraz, baita udaletxera zatzenean ere» diote idatzian.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

141 azienda plazaratu zituzten feria egunean

141 azienda aurkeztu zituzten azaroaren 27an Plaza Zaharra ingurura, Bortzietako feria egunean parte hartzera. Horietatik 81 zaltabereak ziren, 56 behi, eta 4 ahari. Haragitako behien kategorian hiru lehenbiziko sariak, Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoa Etxebesterentzat izan ziren. Suitzen kategorian, lehen eta bigarren saria Gillenbordako Francisco Javier Altzugarainen bi bururentzat izan ziren eta hirugarrena Joxean Igoak eskuratu zuen. Zaldi azientetan, lehen saria Joseba Irigoienentzat izan zen, bigarrena Bixente Arozena arantzarrantzat eta hirugarrena Iriberriko Jon Muñozarentzat. Marisol Otxotekok 100 euro eskuratu zituen pottoka onenarentatik, Maribel Indak 80 euro bere montura behorarentatik eta Jaime Etxegarai beratarrak 70 euro ponni onena plazaratzeagatik. Aharrietan, lau buru aurkeztu zituzten Arantzatik. Lehen saria Leoncio Oskoz eta Gorka Goñik aurkeztutakoarentzat izan zen eta bigarren eta hirugarren saria, Dani Lukanbioren bi bururentzat. Bezperako ajoarriero lehiaketa Agustín Zubietak eta Patxi Oteizak irabazi zuten.

EGUBERRIEN INGURUAN

Kultur egitaraua ekitaldiz gainezka dator

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako ohiko ekitaldiekin batera, abenduaren 12an, Mikel Rodríguezek *Aratz. Begiradaren atzetik* eleberriak aurkeztuko du; 13an ahozko ondareari buruzko doku-

mentala aurkeztuko da eta Beti Gaztek Mendizaleen Eguna prest du (mendi irteera eta bazkaria); 21ean *Irribanda* ikuskizuna frontoian 17:30ean, Pirritx eta Porrotx, musika banda eta abesbatzarekin...

T. 948 627 519
www.koxkonta.es

KOXKONTA
JATETXEA I LESAKA

URTE ZAHARREKO KOTILIOIA DANTZALDIAREKIN

65€
BEZ barne

Koxkonta jatetxea

HASIERAKOAK:

Udalaizpiko ibesikoa

Foie sagan-konpota eta almendra koxkontearekin

Legatz-kokoboa karula bainekin, saltza berdean

Otxaizpiko planban

Limoi-sorbetea caucanekin

PLATER NAUSEAK:

Zapoa labeaz pesto saltza duten

bapnoi tallainekin

Traleta porrilan

Postrea, ardoa, ura, kafea eta

4 lagunendako cava botilla

GIZARTEA → HAMABORTZ ELKARTE DAUDE

Herriko kultur mapa osatu nahi du Kultur Etxeak

Elkarte edo talde bakoitzak fitxa bete behar du bere datuekin

Irune eta Itsaso

Azken urteetan herriari kultura, natura eta kirolaren inguruko zenbait elkarte eta talde berri sortu dira. Aitzinetik zeuden elkarte edo taldeei (Altxata, Andamari, Etxalarko trikitilariak...) berriak gehitu zaizkie, errate baterako Etxalarko gaztik, Etxalarko Natur-zaleak Zarpingorri taldea etab. Honek, urtean zehar antolatzen diren ekitaldiak anitzagoak izatea ahalbidetu du. Denetara gaur egun 15 elkarte edo talde daude Etxalarren.

Talde edo elkarte guztien datuak bilduta, Etxalarko urteko kultur egutegia osatuko da, urtean zehar egiten diren ekitaldi desberdinak zehaztuz.

Hauen artean badira aspaldidanik (Usategietako igandea, Gasna feria...) antolatzen direnak, azken urteetan antolatzen hasi direnak (Gazte eguna, Usategietako tradizioaren besta) eta baita data finkorik ez dutenak baina urtero antolatzen direnak (Udazkeneko kultur egunak).

Mapa honen funtzioa informatiboa izanen da. Etxalarko web orrian zintzilikatuko da eta baita herriko elkarte eta taldeen artean banatu ere. Baina hori lortu ahal izateko, elkarte edo talde bakoitzak fitxa bete eta Kultur Etxeko gutunontzian bota beharko du.

Usategi guztien datuak

2014ko uso sasoiaren, sare bidezko uso harrapaketei dagokienez, Etxalar hirugarren postuan gelditu da. Hauek dira usategi bakoitzean harrapatutako uso do-



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko trikitilariak Lesakan

Urtero bezala Santa Zeziliako kontzertua eskaini zuen Lesakako trikitixa eskolak. Aurtengoan azaroaren 22an izan zen Harriondoa kultur etxean. Etxalartik ere parte hartu zuten trikitixa, pandero, eta gitarrarekin lagunduz.

zenak: Napal 164, Lanne 82, Etxalar 72, Oskitx 52, Lantabat 22, Aldude 13, Sara 10, Behorlegi 8 eta Lekunberri 5.

Ahozko ondarearen dokumentala

"Bortziririk. Uraren magaletik, euskararen bidean" Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Labrit Multimedia-ekin elkarlanean egin dako lana da. Garai bateko Bortzirietako bizimodu bildu dute, herri-tarrei galdetuta: nola egiten zuten bokata, nola aldatzen zituzten zapatak elizan sartu baino lehen, lamien kontuak, sorginei buruzkoak, kontrabandoa... Abenduaren 13an, 19:30ean Kultur Etxean izanen da



ARGAZKIA: ANABEL ARBURUA

Onddo haundiak

Joxemari Arburuak, azaroaren 18an, onddo pare eder hau harrapatu zuen; 900 eta 600 gramokoak.

ikusgai. Sarrera doakoa da, eta dokumentalaren

DVDa salgai egonen da emanaldiaren ondotik.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

LIKIDAZIOA
KUKUXUMUXU kamixetetan
Helduenak 10 €
Haurrenak 5 €

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

IRU BIDE
Erregetgia - Asador

Bizkaia, 3. - Lesaka
Tel: 948 637 127

Xanurki
HAUR-ERAMAILA | HAUR-MASAJEA
ZENBU HIZKUNTZA UMEENTZAKO

www.xanurki.com
676 55 47 05

ARANTZA

GIZARTEA → ABENDUAREN 13AN

Behartsuentzako janaria bilduko dute larunbat honetan

Paris 365 Fundaziora bidaliko dituzte bildutakoak

Nerea ALTZURI

Duela urte batzuk Behar Bidasoaren bitartez egiten zen bezala, orain Paris 365 Fundazioa da bitartekaria. Fundazio hori Iruñeko jendartean baztertuak eta beharrean dauden alde lan handia egiten ari da. Parrokiatik behartsuei laguntzeko bide berri honen berri eman zuten eta dagoeneko boluntario talde bat lanean ari da. Herriarrek hagitzen ongi erantzun dute eta azken hilabeteotan, arropa ona eta bertze gauza aunitz bildu dituzte herrian Paris 365 Fundaziora bideratuz. Aldi honetan, janaria bilduko dute. Larunbat honetan, hilak 13, 10:00etatik 12:00etara Puri Leizaren garajera (Osiña auzoan), denbora luzean kontserbatzen diren janariak eraman daitezke. Norberaren ekarpen ttiki

batekin, denon artean eta denon laguntza batuta, bizitzeko janaririk ere ez duten aunitzen beharrak aseko ditugu.

Antzerkiak

Azken hilabeteotan burubelarri prestatzen ibili ondotik, eskolako haurrek abenduaren 12an eginen dituzte jende aitzinean antzerkiak. 15:00etan hasiko dira eskolako gimnasioan.

Eguberriak

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, abenduaren 24an Olentzeroekin kalejira eginen da herrian barna. 15:30ean aparkalekutik aterako dira. 17:30ean Olentzero eta Mari Domingi ailegatu dira eta ongi-etorriaren ondotik, kantak kantatuko dizkiete bildutakoak. Gero, berendua izanen da.

Hilaren 31n, euskal presoan alde saltzen ari diren boletoen zozketa eginen dute 20:00etan plazan. Ilbeltzaren 5ean, azkenik, hiru errege magoak bisitan etorriko dira.



UTZITAKO ARGAZIAK

Bortzirietako Binakako Pilota Txapelketako final batzuk Arantzan

Herriko gaztetxoak han eta hemen pilota partidak jokatzen ari dira. Andoni Mitxelena eta Xabier Elizalde irakasle dituztela, astean zehar entrenamendu saioak egiten dituzte. Astelehenetan, Andoni, hamar urte bitarteko hamar haurrekin aritzen da; Xabierrek, berriz, ortziraletan, hamar urtetik gorako bi gaztetxo entrenatzen ditu. Bortzirietako Pilota Txapelketa ere aitzinera doa eta txapelketako final batzuk larunbat honetan, abenduak 13, Arantzan jokatuko dira, 10:00etatik aitzinera frontoian. Benjamin B mailan Ekai Madariaga eta Egoitz Goñik parte hartu dute txapelketan, infantil mailan Jon Zabala eta Jonatan Etxeberria aritu dira eta bi bikote hauek ez dira finalerako sailkatu. Benjamin A mailako Gaizka Zulaika eta Mikel Izagirrek azken jardunaldia joan den astean jokatzea zuten eta lerro hauek idaztean, ez dugu emaitzen berririk. Beharbada etorkizuneko pilotari haundiak hementxe ditugu!

'BORTZIRIAK. URAREN MAGALETIK, EUSKARAREN BIDEAN' DOKUMENTALA

Lehengo eta oraingo kontuak lotuz...

Nerea ALTZURI

Larunbat honetan, abenduak 13, 19:30ean, *Bortziriak. Uraren magaletik, euskararen bidean* dokumentala Baskulan ikusgai izanen da. Dokumentala adineko jendeari 2006-2008 bitartean egindako grabazioetan oinarritua dago. Tartean arantzar gizon-emakume hauei egindakoak daude: Cornelio Ubiria, Dionixi Lazkano, Inaxi Iparragirre, Joxemari Ordoki, Juan Aginaga, Juanita Leiza, Koxme Larretxea, Martina Bergara, Norberto Elizondo, Pantta-

leon Errandonea eta Roman Iparragirre. Herriarren testigantza horiek (eta bertze lau herrietakoek), beuren bizitzako pasarteak gaur egungo bortziriarrak errekeatu dituzte dokumental honetan. Itsas amuarraina da protagonista eta lehengo eta oraingo kontuak lotuz, herri batetik bertzerera erreka doa. Dokumentala Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Labrit Multimedia elkarlanean egin dute. Larunbateko emanaldiaren ondotik, DVDa salgai egonen da.

aterpe
albergoa jendetza onak
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

IGANTZI

KULTURA → ABENDUAREN 20AN

25. urteurrena emanaldi batekin borobilduko du Abesbatzak

Herriko dantzariak ere parte hartuko dute eta akabilan saskiaren zozketa egingen dute

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 20an abesbatzaren kontzertua izanen da elizan, 20:30ean. Abesbatzak XXV. urteurrena du aurten, eta urtean zehar antolatu dituen ekitaldiei bukaera emateko, emanaldi berezia prestatu du egun horretarako. Bertzeak bertze, kontzertuan herriko dantzariak ere parte hartuko dute. Akabilan saskiaren zozketa egingen dute.

Mus eta partxis txapelketa

Igantziko Biltokik mus eta partxis txapelketa antolatu du, urtero bezala. Izen ematea



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan, 25. urteurreneko ospakizunekin bukatzeko.

abenduaren 8an bukatu zen. Aurten aldaketa nabarmen batekin dator mus txapelketa: ortziraletan jokatu da, 22:30ean hasita; orain arte beti larunbatarekin jokatu izan da. Partxisa, beti bezala, igandetan izanen da, 16:30ean.

Herriko Etxea. Horregatik, jatetxea itxia dago azaroaren hasieraz gerostik (beheitiko solairuan dagoen ostalua irekia badago ere). Obra aitzinduak daude eta laster espero dute berri irekitzea eta ohiko martxa hartzea.

Biltokiko garbiketa

Igantziko Biltokik elkarte garbitzeko lanpostuaren eskaintza egin du. Proposamenak ilbeltzaren 15era arte aurkeztu ahal dira, eta baldintzak elkartean bertan jarriak dira.



Ba al zenekien...

Eskolako ikasle eta irakasleak Olentzeroko festa prestatzen ari direla abenduaren 19rako.

BORTZIRIAK

Bai Euskarari zozketako zenbaki saridunak

TTIPI-TTAPA

Euskara Mankomunitateak Bai Euskarari zozketa antolatu du. Guztira 10.000 boleto prestatu dituzte, Bortzirietan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileek beren bezero, ikasle edota bazkideei banatzeko. Zozketatzen diren sariak Bai Euskarari Ziurtagiria duten bi eragilek emanak dira. Lehenbiziko zenbaki saritua **3.706** izan da eta Etxalarko Aldalurberea landetxeak banatu du bere bezeroen artean. Saria Berako Errekalde ostatuan lau lagunentzako otordua da.

Bigarren zenbaki saritua **4.734** izan da eta Igantziko Orbela Aseguruak banatu du. Saria Lesakako Oninartek eskaintako Bua txabal markako bi kamiseta dira. Saridunek urtarilaren 9ra bitarteko epea dute mankomunitatearekin harremanean jartzeko. Horretarako 948634125 zenbakira deitu behar da.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

F. LANCHAS
Akutxidorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel. 948 625 474

**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**
Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

BERTIZARANA

GIZARTEA → ABENDUAREN 2AN INAUGURATU ZUTEN

Legasako araztegi berriak Bidasoa ibaiaren tratamendua osatu du

3,4 milioi euro balio du lanak, eta %80 kanonarekin ordainduko da

TTIPI-TTAPA

Legasako araztegi berriak Bidasoa ibaiak jasotzen duen hondakin-uren tratamendua osatu du eta guztira mila biztanle inguru dituzten Oronoz- Mugairi, Oieregi eta Narbarteko udalerriei ere zerbitzua ematen die.

Aixtondoko parajearen kokatuta, azpiegitura horrek udalerririk isuriari erantzuten dio. 2012aren akabailan hasitako lehen fase batean, Legasa eta Narbarteko udalerriak lotu ziren araztegiara. Bigarren batean, aurtengo martxotik aitzinera egindakoa, gainerako udalerriak. Zenbaitetan, lotura kolektore batzuk erabiliz egin da: Oronozko iparraldeko hondakin-urak 358 metro luzeko igorgailu baten bidez bideratzen dira, hegoalderako, berriz, 126 metroko beste bat eraiki behar izan da. Oieregin, isuria Tipulatze-ko auzoraino eraman behar izan da 439 metro luzeko kolektore batetik. Puntu horretatik,

eta 82 metroko bertze tubo baten bidez, urak ponpaketa-putzu baten bidez eramaten dira araztegiaraino.

Egungo instalazioa egunean 437 metro kubiko tratatzeko prestatuta dago, eta ekaitza dagoenean adibidez, egunero 1.049 metro kubiko ere hartzen di-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuko ordezkariak, Bertizaranakoekin batera Legasako araztegiaren.

tu. 3,4 milioi euro balio du, kopuru horren % 20 Nafarroako Gobernuak finantzatu du eta % 80, berriz, saneamenduko kanonarekin. Kanon hori herritar guztiek ordaintzen dute NILSAk, Gobernuaren enpresa publikoak kudeatutako ur-ordainagiriaren bidez. Sozietate horrek 10 hi-

labete iraun duen obra ikuskatu du, eta instalazioen mantentze-lanaz ere arduratzen da.

Bertzalde, orain arte Narbarte eta Legasari zerbitzua ematen zioten putzu septikoak bota egin dira; amortizata geratu dira 15 urtez funtzionamenduan izan ondoren.

Abenduaren 2an instalazioak bisitatu zituen Jose Javier Esparza Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio-ko kontseilariak, Bertizarana eta Baztango udaletako alkateekin eta Legasa, Narbarte, Oieregi eta Oronoz-Mugairiko herrietako alkateekin batera.




OLENTZERO eta ERREGEAK BORTZIRIAK en!!

ETORRI eskaintzen ALDIZKARIA eske eta jaso OPARI bat



Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com




%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

MAHAI eta AULKIETAN ESKAINTZA BEREZIAK

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 24AN

Olentzero zintzo etorriko da aurten ere

16:00etan aterako dira haurrak bi taldetan banatuak

aldea eginen dute. Guztiak akitutakoan frontoian geldituko dira Olentzerori muxuak, eskutitzak... emateko eta txokolate goxo goxo dastatzeko.

Maidar PETRIRENA

Abenduan sartu garen honetan Eguberriak aipagai ditugu. Abenduaren 24an urtero bezala Olentzero etorriko zaigu Sunbillara. Arratsaldeko 4etan aterako dira neska-mutikoak bi taldeetan banatuak. Alde batetik 0-9 urte bitartekoak, beheitiko eskolatik atera eta Olentzero menditik nola etortzen den ikustera joanen gara ondoren herrian barnako ibilbidea eginez. Koxkorak berriz, hau da 10etik goitikoak, zubiaren bertze

Xexili Eguna

Azaroaren 22an Xexili eguna zela eta, Musikarien eguna, Nafarroako Koroen elkarteak Mendi abesbatzaren kontzertua antolatu zuen herrian. Kontzertua, Jon Irazokiren zuzendaritzapean, 12 kanta ezberdinez osotua zegoen. Bertan hainbat bakarlarik parte hartu zuten. Sopranoetan: Mañoli Apezteguia, Bixi Amezttoy eta Alizia Telletxeak. Tenoreetan: Xalbador Arriola herritarra eta



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Lesakako Musika Bandak jo zuen Nafarroaren Egunean

Lesakako Musika Bandak plazan kontzertua eskaini zuen abenduaren 3an. Javier Zubietaren zuzendaritzapean, Nafarroako Himnoarekin hasi eta zortzi kantaz osaturiko kontzertu ederra entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

baritonoetan: Beñardo San Miguel. Musika instrumentuetan, pianoan Ruth Etxebeste, txistuan Itziar Irigoien, akordeoan Miren Hernandorena herritarra, gitaran Jose Luis Olaizola eta maraketan Gorka Ordax. Zorionak!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Mendi Abesbatzakoak, elizan eskainitako emanaldian.

Ba al zenekien

Miki Nadal humoristaren ama Sunbillako Larra-buru baserrian jaioa dela



UTZITAKO ARGAZKIA

Herreratarrek akitu dute Opena

Herreratar anaiek Diario de Navarrak antolatutako Opena akitu dute. 9 asteburuz ibili dira Nafarroako herrietako karreretan parte hartzen. Lizarrako azken karreraren Enekok 3. postua lortu zuen eta Koldo anai gazteenak 2. postua. Saillapen orokorrean, Eneko laugarren izan zen eta Koldo bigarren.

KALITATE MAXIMOA PREZIORIK HOBERENEAN

AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

GASOLIO A prezio ezin hobeak

ESKAINITZA BEREZIA!!
Azaroan eta abenduan 5 zentimo/litro deskontu zuzena bankuko txartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIENTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero
Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

* Eskaintza baliagarria irailaren 11etik abenduaren 11 arte. Promozioa baliagarria erosketa-tiketak aurkeztu behar diren karguak hurbildu parte hartzen duten jantietan zentzua gasolindegian dagoen karguaren aurretik da.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU

DONEZTEBE

EKITALDIK → HILABETE OSOAN

Ekitaldiz betea dakar zakua Olentzerok

Marga ERDOZAIN

Urtero bezala, aurreten ere Olentzero eguberrietan eskuzabal portatuko da Donezteben eta oraingoan ere ekitaldi ezberdinez osatutako zakua utziko du. Herriko talde guzien ahalegina eta elkarlanak programazio anitza eta zabala gauzatu du. Egunez egun eta antolatzaile bakoitzak Eguberrietarako prestatu duena ondorengo programazioan doa. Ea Olentzerok talde guzi hauei 2015erako ilusioa, diru-laguntzak eta lanean jarritzeko gogoia zukua ekartzen dien.

Abenduaren 14an: Fundacion Remontek X. Eguberrietako Torneo: (Urriza-Uterga; San Miguel-Endika).

Abenduaren 19an: Mendi Abesbatza eta Donostiako Udaleko Txistulariek: Eguberrietako kontzertua, 20:00etan elizan; (Errekako dantzariak, Eduardo Almandoz eta Agorreta Musika eskolako ikas-

leen laguntzaz).

Abenduaren 20an: Burrumba eta Ostatuek: 11.00etan haurrendako jokuak. 16:30ean: Conquistour Errebanxa (Baztan/Bidasoa, Olite, Konkistadore ohiak eta Doneztebeko taldea) eskolako frontoian. Arratsaldean Oharkabe taldea eta luntxa Santa Luzia plazan. Irriak Barra-barra Antzerki taldeak: 18:00etan zinean *Cascanueces*, *Olentzero* eta *Basajaun* haurrentzat eta *La cena de Navidad* helduentzat.

Abenduaren 24an: Errekak: Saioara mendi irteera. 17:30ean Olentzeroaren etorrera: udala, herriko dantzariak, musikariak eta herriarrek lagunduta.

Abenduaren 26an: Elizak. San Esteban eguneko meza eta Udalak luntxa. Erreka eta Mendaur guraso elkar-teen: elkartasuneko zine emanaldiak.

Abenduaren 27an: Doneztebarrak Merkataria eta Zerbitzu Elkar-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saioara eta Mendaurrera igoz akituko dute urtea Errekako mendi taldekoek.

teak: "Kriston zozketa" Santa Luzia plazan, 5,30etan

Abenduaren 28an: Doneztebeko Elizak: Meza eta "Recreo de Elizondo" banda. Atsaldetan Pailazoak eskole-tako frontoian.

Abenduaren 30ean: Erreka eta Mendaur guraso elkar-teen: eskulan tailerra liburutegian.

Abenduaren 31n: Errekak: Goizeko 7,30etan Mendaurrera mendi irteera atsaldetan, 6,00etan IX San Silbestre Doneztebarrak.

Abenduaren 27, 28, 31 eta urtarrilaren 3 eta 4an: Doneztebe Futbol Taldeak: IV. Eguberrietako Futnol 7 Torneo.

Urtarrilaren 1ean: 10:30ean "Urte Berri-berri" haurrak karrikaz karrika ibiliko dira.

Urtarrilaren 5ean: "Errege Kabalgata".

Ba al zenekien

Abenduaren 13an ospatuko den Santa Luzia eguneko ospakizunean Udalak Urrezko Titarea Blanca Bañares jostunari emanen diola goizeko 11etako mezan. Goiz osoan elizatarian 13 eskulangileen erakusketa egonen da.

ABENDUAREN 19AN

Eguberrietako kontzertu berezia

TTIPI-TTAPA

Mendi Abesbatzak Donostiako Udaleko Txistulari Taldearekin batera antolatu ohi duen Eguberrietako kontzertua berezia izanen da aurreten. Alde batetik, Txistulari Aldizkariaren azken aleak, hainbat herrietako dantzak bildu eta argitaratu ditu: Trapatan eta Banderaren dantzak. Jagoba Astiazaranek armonizatu ere egin ditu. Txistu banda tradizionalaren formatuan jo ahal izanen dira, eta moldaketa horiek estraineko entzunaren dira kontzertuan. Errekako dantzariak eta bandera dantzatuko duen Eduardo Almandoz ere ariko dira. Bertzalde, Jose Ignazio Ansorenak, Mendi Abesbatzari eskainitako bi bilantziko konposatu ditu eta lehen aldiz adituko dira. Agorreta Musika Eskolako hainbat ikasle abesten zein instrumentuak jotzen ere parte hartuko dute. Itziar Irigoienek laguntza ere eskertu nahi izan dute antolatzaileek.

AMEZTIA
HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA 18€ HAURENTZAKO MENUA 10€

Eta gainera...

ENTZALADAK PASTA FRESKOA SASOIKO BARAZKIAK PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028 DONEZTEBE www.ameztia.com

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA • T. 637 40 86 40 • 31 780 BERA - andonimabako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko internet
- Digital + banatzaile ofiziala

BORDALAI, S.L.
Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 725 • carnesein@bordalai.com

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

GIZARTEA → URRIAN BAINO 29 GEHIAGO

Eskualdeko 1.185 lagun zeuden lanik gabe azaro hondarrean

Erdiak baino gehixeagoak (594) ez du langabezia prestaziorik kobratzen

TTIPI-TTAPA

1.185 lagun zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak azaro hondarrean, urrian baino 29 gehiago (%2,51ko igoera). Nafarroa osoan %1,04 igo da langabezia azaroan, beraz, eskualdean barenaz bertzekoa baino ge-

hiago igo da. Azaroan 500 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 50 bakarrik mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 566 lagun daude langabezia, urrian baino 26 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere urrian baino langabetu bat gehiago dago, 500 langabetu denera. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean 70 langabetu daude, urrian baino 3 gehiago.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA 2014ko azaroa				
Herria	Populazioa 2013	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	7	2	5
ARANTZA	634	19	8	11
ARESO	271	9	5	4
BAZTAN	7.974	310	159	151
BEINTZA-LABAIEN	240	11	3	8
BERA	3.829	165	75	90
BERTIZARANA	614	40	21	19
DONAMARIA	437	11	9	4
DONEZTEBE	1.681	101	64	37
ELGORRIAGA	225	14	6	8
ERATSUN	159	10	5	5
ETXALAR	829	24	11	13
EZKURRA	151	8	3	5
GOIZUETA	763	44	24	20
IGANTZI	627	12	3	9
ITUREN	513	34	18	16
LEITZA	2.889	155	71	84
LESAKA	2.784	122	62	60
OIZ	144	6	2	4
SALDIAS	114	7	3	4
SUNBILLA	627	32	19	13
URDAZUBI	380	8	2	6
URROZ	181	4	3	1
ZUBIETA	316	18	8	10
ZUGARRAMURDI	220	12	8	4
Denetara	26.722	1.185	(%50,13) 594	(%49,87) 591

Adin tarte horretako emakumeen artean 3 guttiago daude lanik gabe, 49 denera. Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, eta azaroan gainera 38 gehiago pilatu ditu, 762tik 800ra pasatuz. Industria arlo-

an langabetu bat guttiago dago, 167 denera. Eraikuntzan, bortz langabetu guttiago daude, 122 guztira. Nekazaritzan langabetu kopurua mantentzen da, 26 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 70 lagun daude

langabezia, urrian baino 3 guttiago. Azken hilabeteetan bezala, azaroan ere gehiago dira langabezia-prestaziorik kobratzen ez dutenak (594 langabetu, %50,13) kobratzen dutenak baino (591 langabetu, %49,87).

MALERREKA



ARGAZKIA: M. ERDOZAIN

DBHko ikasle guztiak izan ziren elkarretaratzean.

EKITALDIAK → AZAROAREN 25EAN

Genero indarkeriaren kontrako egun jendetsua

Ia 200 lagun bildu ziren Doneztebeko eskolako bidegurutzean

Marga ERDOZAIN

Nazioarteko Genero Indarkeriaren kontrako egunak Malerrekan argazki polita utzi zuen azaroaren 25ean, Doneztebeko eskoletako bidegurutzean ia 200 lagunek ozenki indarkeri hori salatu baitzuten. Azpimarratu behar da DBHko ikasle guziak atera zirela bilkura horre-

tara Mendaur institutu-ko irakasleek lagunduta. Bilkuraz gain, eta egun honetatik haratago joanda, aipatu behar da ikasgeletan gai hau sakonki landu dela. Pankartaren gibelean, egun horretarako lilaz margo-
tutako esku erraldoiak zeramatzuten ikasleak, herriar xumeak baita ordezkari politikoak ere. Denak argazki esanguratsuen atzean baina egunero lana egin behar dela aldarrikatuz. Aipatu behar da antolatzaileak, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak, lan handia egin zue-

la dena bikain ateratzeko: pankarta eginez, esku lila txikiak eginez (ikasle guziei bana oparitu zitzairen sudaderan zintzilikatzeke). Bilkura musikaz alaituta egon zen eta akitzeko gaztetxoek eta bertaratu zirenek txalo zaparrada handi bat jo zuten. Zertarako? ozenki gizarte-
ri errateko genero indarkeria edo beste eratako indarkeria gaitzetsi egin behar dela.

ELKARLANA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eskolak eta gurasoek el-



ARGAZKIA: LEIRE AMOROS

Euskaraz bizi nahi dut lasterketa arrakastatsua suertatu zen

140 lagunek parte hartu zuten abenduaren 3an Euskaraz bizi nahi dut lasterketan. Giro ederrean burutu zen lasterkaldia, jai giroan, musika, abestiak... Antolakuntza ere bikain, bokatak, edaria, diplomak eta sarien zozketa ere egin zen. Mundiala izan da aurtengoa eta iaz baino 25 lagun gehiago atera ziren. Arratsaldeko bertso saioa ere hagitz ongi atera zen.

Ba al zenekien

Abenduaren 3an Donezteben bertso saio mundiala burutu zela. Sustrai Colina, Eneko Lazkoz eta Ander Fuentes Itturrik majo kantatu zuten, Alaitz Rekondo gai-jartzailea izanda.

karlan estua daramate indarkeriaren kontrako jarrerak nola saihestu eta gai hau nola landu behar den zehazteko. Zoritzarrez, azken urte hauetan jarrera xenofoboak, arrazistak, intoleranteak, matxistak areagotzean ari dira gure ume eta gaztetxoaren artean. Tolerantzia zero eta familia, gizarte eta

eskolaren arteko elkarlana beharrezkotzat jotzen da. Elkarlan honen ondorioz ekimen gehiago gauzatuko dira hemendik aurrera: bilkurak, hitzaldiak, tutoretzak... gaia gizarteratu behar da eta gaztetik landu behar da, gure gizartearen etorkizunaren hazia gure semeengan erein behar baitugu.



ABENDUAREN 26AN

Elkartasuneko zine emanaldia Sanfilippo Sindromea duten Bilboko hiru anai-arreben alde

TTIPI-TTAPA

Erreka eta Mendaur guraso elkarte-
ek Eguberrietan zine emanaldi berezia antolatu dute, Araitx, Ixone eta Unai umetxoei laguntzeko. Bilboko hiru anai-arreba hauek Sanfilippo sindromea dute. Gaitz hau degeneratiboa da, alzheimer infantila, eta bizi itxaropen laburra dute. Euskal Herrian 6 gaixo daude eta

hiru familia honetan. Elkartasuna eta laguntza eskatzen da ikerketa abiarazteko, gaitz honi aurre egiteko itenbide bakarra baita. Araitx, Ixone eta Unairen familiarekin bat eginda, abenduaren 26an bildutako dirua familiari emanen zaio. Beraz, egun horretan norberak jarriko dio prezioa zineko sarrerari, euro bat, bi, bost... ahal duena. Kutxabankeko zen-

baki bat eman dute nahi duenak lagun dezan: 20950028809113398726.

Ekimen honetaz gain, aipatu behar da Mendaur institutuan ere bertze keinu polit bat egin behar dutela ikasleek. Abenduaren 19an jostailu bilketa egingen dute bertako Gizarte Zerbitzuko beharrak asetzeko. Egundorretan ikasleek trukean oinarritutako azoka ere burutuko dute. Hezkuntza komunitatetik familia guziei eskerrak eman nahi zaizkie ekimen hauetan parte hartzeagatik; baita elikagi bankurako zinean bildutako kopuruagatik ere (15 kaxa handi lortu baitira).

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 22AN

Zorroilo elkartearen eguna giro onean ospatu zuten

Abenduko ospakizunak hasteko opil jatea prestatu zuen Guratso Elkartek

Mattin LARRALDE

Zorroilo elkarteako urteko besta izan zen azaroaren 22an. Goizez txetel lehiaketa egin zen

eta jende dexente bildu zen. Saillapenean, mutiletan Iñigo suertatu zen irabazle eta bigarren Ruben; nesketan, Nerea izan zen abilena eta bigarren Olaia. Haurretan, Josu garaile. Ordubietan bazkaria izan zuten eta bertara 35bat lagun hurbildu ziren. Bazkalondoan, bingoaren txanda izan zen eta musika eta giro ederrean pasatu zuten arratsal-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Zorroilo elkartearen txetel lehiaketan parte hartu zutenetako batzuk.

dea. Horrekin konforme ez eta eguna ongi akitzeko afaria izan zuten. Lerro hauen bidez, zorrionak Zorroilo elkarteari besta egun polita jarri zutelako herrian.

Opil jatea

Abendua hasi eta lehenengo aste bukaran, urtero bezala, opil jatea plantatu zuen Guratso Elkartek. Hemen ere jende ugari bildu-

zen. Ekitaldi hau aperitibo ttiki bat da, ondorengo egun potolo gehiegi izanen direlako. Baina dena bere tenorean. Hilabete honetan ilusioa bizirik dago.



Miren Camisón Goiernetse

HAZIERA TALDEAK ETA HAUR MASAJEA

Haurren adinaren arabera Haziera Taldeak

0-6 hilabete/ 6-12/ 12-18/ 18-2 urte/2-3 urte

Sarrera Tailerra eta Jarraipen eta Sakontze Tailerra

Zer da Haur Masajea?

Familiei, bere haurtxoa jaio ondoren eta lehenengo urtetan, masajea ematearen praktikan bidelaguntza eskaini. Haurtxo bakoitzaren banakako beharretan laguntza emanez, bere gaitasunak modu integralean garatu ditzan.

Zer da Haziera Taldea?

Familiei, bere haziera prozesuan eta haur garapenaren fase ezberdinetan, bidelaguntza eskaini: haurraren beharrak fase bakoitzean, 0-3 urteko psikomotrizitatea, edoskitzea eta elikadura, gizartaratzea, anal-arreba txikien jaiotza, sexualitatea, etab.

NON: BERA KO KIROLDEGIAN

Tailerraren arabera: ostiral arratsaldetan edota larunbat goizetan

NOIZ: Hasiera 2015eko URTARRILEAN

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:

Telf.: 639 56 31 91 (Miren)

Email: mirentxug@yahoo.es

ARDURADUNA: Miren Camisón Goiernetse

Haziera Ekologikoan eta Prebentzio Psikosozialean Espezialista (Es.Te.R.)

Haur Masaje eta Haur Oin Erreflexologian Monitore (Aemi, Hazihezi, Es.Te.R.)

Edoskitze monitore

Haur Hezkuntzako irakaslea eta Filosofian Lizentziatua

Haur Filosofiako irakaslea

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EGUN BEREZIAK DATOZ

Eguberrietako ospakizunak prestatzen ari dira haurrak

Olentzerori eskutitza eta kantuak, eskolako ikuskizuna...

TTIPI-TTAPA

Eguberriak gainean daukagu. Haurrak hor dabilta Olentzerori eskutitza idazten eta nola ez, eskolako azken eguneko ikuskizuna prestatzen. Baita Eguberri bezperan, herriari itzulua emanez, alaituz eta goxatuz kantuan ateratzeko prestaketan ere. Hain zuzen, arratsalde hasieran herriari itzulua ematen diote bai Iturengo, baita Aurtizko haurrek ere Gabonetako kanta kantatuz. Ilunabar aldera, azkeneko urteetan Olentzeroren bixita izaten da Iturenen. Bere astoarekin etortzen da, joaldunek

lagundua eta jaiotza bizidun bat ere irudikatzen dute.

Urte zaharreko gaua eta urte berriko lehen eguna ere ederki ospatzen da, baina ospakizun handiena Errege Bezperan izaten da: Joare soinuak nagusi arratsaldetik goizeko ordu tikiak arte!! Haurrak arratsaldean Iturenen eta Aurtitzen ibiliko dira eta gauean bai Iturenen baita Aurtitzen ere afari baten inguruan elkartu ondotik, Errege Magoei ongi etorria emateko joare soinuak izanen dira kaleetan. Iñauterietan bezala, Aurtitz, Ituren eta Zubieta, hiru herriak elkartuko dituzte. Gazte, heldu, mutil eta nesken eskutik izanen dira joaldunak. Eta noski, joare soinuez gain bai Ituren eta baita Aurtitzen ere juerga polita izanen da!



ARGAZKIAK: IRUNE BAZTERRIKA

Porc D'Or saria herrira

XXI. edizioa izan du Porc d'Or sariak. Estatu osoko zerri haztegiak saritzen dituzte Lleidako lehiaketa honetan. Nafarroa hirugarren postuan geratu da, borts granja saritu baitituzte (bi urre, bat zilarra eta bi brontzezkoak). Borts granja hauetatik bat herrikoa genuen, hain zuzen Ameztiako Ixidro Bazterrikaren granja. Brontzezko saria etxeratu zuen honek. Ez da lehen aldia sariketa hauetan parte hartu eta saria lortzen duela. Zorionak!

Alazne Mariano Izeta finalean

Azaroan ospatu zen Mariano Izeta txapelketan herriko bi bertsolari aritu ziren, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu. Hagitz saio polita egin zuten eta Alazne Untxalo Elizondoko finalerako ere sailkatu zen. Bosgarren postua lortu zuen, Saioa Alkai-za txapeldun suertatu zen saioan. Orain, agurrean esan zuen bezala Nafarroako bertso txapelketa prestatzen burubelarri hasiko da, seguruenik Egoitz eta Iker Gorosterrazu anaiak bezala.



UTZITAKO ARGAZKIA

Diario de Navarra BTT Openeko azken proban bigarren izan zen Javier Sein Lizarran.

Santo Tomasak Abarun ostatuan

Joan den urtean lehenbiziko aldiz ospatu zen Abarun ostatuan Santo Tomasen besta.

Bingoa, karaokea eta nola ez besta izan zen. Aurtengoan ere ospatuko da abenduaren 20an eta musika, txistorra eta giro aparta izanen dute. Animatu!



URBEN ARKITEKTOAK
ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)



TELF. 688 88 77 77 estudio@urbanarquitectos.com

URBEN EASO 77 S.L. ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbanarquitectos.com

GIZARTEA → AZAROAREN 29AN DANTXARINEAN

Joaldunek bi lagun omendu dituzte Kantu Zaharren Egunean

Angel Mariezkurrena antolatzaileari ttuntturroa eman zioten eta Marcos Juanikorena joaldun beteranoari oroigarri berezia

Fermin ETXEKOLONEA

Angel Mariezkurrenaren eskutik joaten dira herriko joaldunak Dantxarineko Kantu Zaharren Egutegia. Lehenbizi harrera egiten diete bazkaltiarrei eta gero beste saio bat ere eskaintzen dute bazkalondan.

Azaroaren 29an egin zen Kantu Zaharren

Eguneko aurtengo edizioan, Joaldunek ttuntturroa eman zioten Angel Mariezkurrenari, eskerrak emanez euskal kulturaren festa polit hauetan pare hartzeko aukera emateagatik.

Irteera hori aprobeztatuz, Marcos Juanikorenari ere eskerrak eman zizkioten joaldunek, sorpresa ederra emanez. 76 urte ditu Juanikorenak eta beti bere borondatea eta prestutasuna erakutsi du joaldun ateratzeko eta parte hartzeko. Liburuxka bat oparitu zioten, bere bizitza eta ibilbidea aipatzen dituen Aitor Mendiluzeren bertsoekin. Tomas Elizalde joaldunaren eskutik jaso zuen oparia. 160 bat lagun bildu ziren Dantxarinean eta egun ederra pasatu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joaldunek Mariezkurrenari ttuntturroa ematen eta Juanikorena emandako oparia.

Jaiotza

Anuk Erregerena Leizeaga jaio da azaroaren 23an. Ongietorria zubietar berri bateri eta zorianak Arrate eta Aratz

gurasoei eta Txelo eta Jon amatxi eta atautxiri.

Olentzero

Olentzerori ongietorria egiteko prestatzen

ari da Txitxillo elkarteak. Bilerak egina dute eta urteroko ekitaldiak lotzen joanen dira, politikoki. Herriko umeak ere ilusioz espero dute egun hania.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

artekari@artekari.com

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

www.carneecologicanaavarra.com
635 715 038

Arkumea, txahal eta moxal lote ekologikoak, zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

Bertatik bertara bizi nahi dugulako

trigolimpio

Garaialda - Bera - Saragüeta - Añibe - Orontze

EZKURRA

GIZARTEA → DEMOGRAFIA DATU GEHIAGO

Gizasemeen kopuruak emakumeena bikoizten du gaur egun

Erroldatutako 171 bizilagunetatik 57 kanpoan bizi dira

Fernando ETXEBERRIA

Herriaren etorkizunari buruzko datu gehiago emateko, artxibora jo eta emaitza interesgarriak topa daitezke. Gaur egun 171 bizilagun daude herrian erroldatuak eta horietatik 114

gizasemeak dira eta 57 emakumeak. Beste datu interesgarria: erroldatutako 171 lagun horietatik 57 kanpoan bizi dira, beraz, 114 dira egiazko bizilagunak.

Adinari dagokionez, herria zahartzen ari da eta horren erakusgarri, 50 urtetik gorakoak 68 bizilagun direla, 60 urtetik gorakok 47. 20 urtetik beherako 14 neska-mutil besterik ez daude. Kopuru ezkor hauek ikusita, bizilagun



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxeberriatarren bilkura

Herriko hainbat familiek anaitasun bilkurak egiten dituzte urtean behin, elkarren berri izateko eta harremanari eusteko. Horixe da Etxeberriatarren kasua, Hendaian bildu baitziren Cruz anai zaharrenaren (78 urte) eta honen emazte Ceciliaren etxean. Bazkari ederra izan zuten eta bazkalondoa ederragoa. Bederatzi anai-arrebetatik bi hil egin ziren, horietako bat jaio eta hilabete batzuetara. Bizirik dauden guztiak erretiratuak daude, bere garaian unibertsitateko irakasle, erizain, taxista, administrari, etxekoandre eta beste lanetan aritu ondotik. Gaur egun anai bakarra bizi da Ezkurran, hiru Iruñean, bat Donostian eta bi Hendaian.

ezkor batek zera zioen: beharbada Ezkurako bizilagunak desagertu

egingo dira, baina ez herria, etxe berriak egiten eta zaharrak zahar-

berritzen ari direnez, ez baitute utziko hauek erortzen.

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → IAZ BEZALAXE

Californiatik sorterrira itzuli eta lagunekin elkartu dira

Jose Telletxea eta Bitor Albistur labaiendarrak

Arantxa ITURRALDE

Jose Telletxea eta Bitor Albistur Labaindarrak Californiatik sorterrira itzuli dira. Jose egun batzuk igarotzera etorri da, Bitorrek aldiz, bi hi-



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Jose Telletxea eta Bitor Albistur, Ameriketatik sorterrira bueltan, lagunekin mahai inguruan.

labete pasatu ditu. Joan den urtean ere elkarrekin tokatu ziren herrian. Aitzaki paregabea izan da herriko ostatu-

an afari ederra egiteko elkarte eta lagun artean. Afal ostea Anjel Estangak bere esku soinuarekin girotu zuen

hainbat kantu joaz. Goizaldera bukatu zen festa. Ea datorren urtean aukera izaten den berriro elkartu ahal izateko!!!

GEHIGARRIKO LEHENBIZIKOA

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 29AN

Euriak ez zuen zapuztu Azinda Feriako giroa

500 lagun bildu ziren herri bazkarian eta eskulangileek eskolako frontoian erakutsi zituzten beraien lanak

TTIPI-TTAPA

Euriaren eraginez, eskulangileen produktu gehienak eskolako frontoira eraman behar izan zituzten, baina halere giro bikaina izan zen azaroaren 29an XI. Azinda Feria Egunean. 500 bat lagun bildu ziren he-

rri bazkarian. Bezperan, Oskar Estangak *Erri-matuz garenera arri-matuz* emankizuna eskaini zuen ganbaran.

Azienda, artisau eta nekazaritza produktuen postuak ikusgai izan ziren larunbatean. Azindei dagokienez, betizuk, astoak, zaldikoak, oiloak, indioilarrak, ardiak, umatu berri zen zerrama zerrikumee-kin... ikusteko modua izan zen. Eskulangileei dagokienez, Belakoren joareek edo Luis Elizegiren zaharbertitutako motoak ikusmina piztu zuten. Yandeneko atarian dolarea prestatu eta sagardoa egiten erakustaldia ere eskaini zuten.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Dolarea Yandeneko atarian, ardiak zubi haundian eta eskulangileak eskolako frontoian.

Gainera, aipatzekoa da, Luis Ignacio Lujanbio Etxeberriak garai batean sifoia eta gaseosa egiteko erabiltzen zuen tresneria atera zuela plazara eta bere funtzionamendua erakutsi zuela.

Horretaz gain, barazkiak, taloak eta baserrietako beste hainbeste produktu plazaratu zituzten herritarrek. Saralegitar gazteek aizkora erakustaldia berezia eskaini zuten, enborrak

altueran aizkorarekin eta aitzurrarekin ere moztuz. Herri bazkarian, berriz, 500 bat lagun bildu ziren giro ederrean eta ondotik, ohikoa denez, zerriaren puskak zozketatu zituzten.

FLASH

Auzolana Alkainzuriainen

Udalak beste auzolan bat deitu du, akldi honetan Alkaizuriaingo errepidea garbitzeko. Abenduaren 14an, igandean 08:30ean gelditu dira.

Umore Onako bazkideen bazkaria

Abenduaren 13an eginen dute Umore Onako bazkideek Eguberrietako bazkaria. Arantxa Eskudero, arrain zopa, legatza eta solomilloa prestatuko du. Orain arte doan izan dute bazkaria, baina aurtan 10euro ordaindu beharko dute.

Abesbatzaren kontzertua eta afaria

Umore Ona Abesbatzak urte bukaerako kontzertua eskainiko du abenduaren 19an, 19:45ean elizan. Gero, afaria izanen dute elkartean.

Eskolako frontoiko sarbidea

Eskolako frontoirako sarbidea eta ateratzea errazteko, frontisaren ondoan atea egin da eta bertara heltzeko aldapatxo bat egin dute kanpoko aldetik. Orain artean, frontoira sartzeko eskailerak erabili behar ziren eta hemendik aurrera, mugikortasuna murritzua edo beste zailtasunen bat dutenek eskuragarriago izanen dute sartzeara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Insignis pinuaren garaikideen bilkura

Duela 50 bat urte sartu zen lehen aldiz insignis pinua Goizueta eta inguruko mendietan. Baina gaur egun, gaitza dela eta, debekatua dago pisu klase hau landatzea eta hortaz, nolabait Insignis pinuaren garaia edo zikloa bukatu dela eta, bilkura egin zuten azaroaren 14an Umore Ona elkartean urte hauetan oihangintza lan hauekin zer ikusia izan dutenetako batzuk. Urte hauetako Ingurumeneko ordezkariak, mendizainak, mendi langileak, udal langileak, alka-teak, zinegotziak eta beste laguntzaileak bildu ziren mahaiaren inguruan.

IRAKASKUNTZA → AZAROAREN 27AN BARAÑAINEN

Bikaintasunarekin Konpromisoaren aitorpena jaso dute hiru ikastetxek

Elizondoko
ikastetxe
publikoak eta
Lanbide
Eskolak eta
Lesakako Irain
eskolak

TTIPI-TTAPA

Bikaintasunaren Nafarroako Fundazioak EFQM ebaluazio sako-
na pasa ondoren, Bikaintasunarekiko konpro-
misoaren ziurtagiria eman die Nafarroako
zenbait ikastetxeri. Tar-
tean, eskualdeko hiru
ikastetxek jaso zuten
ziurtagiria azaroaren
27an Barañaingo Audi-
torium-ean: Elizondoko
San Francisco Javier
ikastetxe publikoak eta
Lanbide Eskolak eta Le-
sakako Irain Eskola Pu-
blikoak.

Aipatutako aitorte-
na lortu ahal izateko
ikastetxeek EFQM ere-
duaren arabera eginda-
ko diagnosia pasatu be-
har izan zuten eta ziur-
tagiri hau lortzeagatik,
Nafarroako Gobernu-
ko Hezkuntza Departa-
mentuak konpromezua-
ren zigilua ere eman die.

Elizondoko ikastetxe
publikoaren izenean,
Isabel Ibarrola zuzen-
dariak eta Ane Gazte-
lumendi idazkariak ja-
so zuten ziurtagiria eta
Irain eskola publikoaren
izenean, Lourdes Mazi-
zior zuzendariak eta
Edurne Aranburu ira-
kasleak.



UTZITAKO ARGAZKIA
Lesakako Irain
eskola pu-
blikoko Lourdes
Mazizior eta
Edurne
Aranburu,
ziurtagiria
jasotzerakoan.

→ → → Jarrai gaitzazu. Badabil.

NAFARROAKO
RURAL KUTXA

**Presta zaitez zure
ERRETIROAZ GOZATZEKO**

**Guk Plana jarriko dizugu
zu sasoian jar zaitezen**

RGA Protegido 2024 Plan Berria

**%100
Kapital
Ziurtatua**

**%63
puntuaz puntuazko birbaltzeak
Eurostoxx 50 indiziaren
gainean, denboraldi honetan***

**Hau da, burtsak gora egiten badu, Eurostoxx goratu den %63a
irabaziko duzu eta, behera eginez gero, ez duzu deus galduko
kapitala ziurtatua duzulako.**

* Denboraldia: 15 urte eta 3 hilabete. 2014ko azaroaren 15a eta abenduaren 31 bitarteko egindako ekarpenak, azaroaren 15a eta abenduaren 31 bitarteko egindako kapitala transferentzia eta urtarrilaren 30a bitarteko egindakoak, edota kasu guztietan inbertsioen kopurua bukatu arte, behera Banco Cooperativo Español-ek peritiko planari emaniko kapitala. Denbora-gutunaren arabera, eta denbora-gutunaren arabera, adierazitako baliatzeak inbertsioen arabera. Bermearen mugak: 2024ko apirilaren 30a.

LEITZA

PARTE HARTZE PROZESUA → ABENDUAREN 12AN

Kale komunikazioaren inguruan gogoeta egiteko gonbidapena

Kartel,
pankarta,
pintaden...
inguruko
kudeaketa
nolako izan
behar den
erabakitzeko

JM BARRIOLA

Zer da Leitzako paretetik kontaktatzen digutena? Nola kontaktatzen digute? Nori kontaktatzen diote? Pankartak, kartelak, pintadak, muralak... bitarteko ugari daude eskura gure herrian sortzen diren dinamika eta mezu mordoak transmititzeko.

Gai honen inguruan Leitzan iritzi eta behar desberdinak daudela kontziente izanda herritarren arteko solasguenean antolatu nahi dute, herri komunikatioago eta erosoago baterako gogoeta egiten hasteko.

Zapore bixiarekin hasteko abenduaren 12an arratsaldeko 19.00etan udaletxean hitzaldia antolatu dute komunikazioaren inguruko lehenengo gogoeta egiten hasteko.

Hiru lagun izango dira hizlari. Leitzako udal ordezkariak Leitzako hormek esaten digutenaren inguruko ikuspegi desberdinak aurkeztuko dituzte zer, non eta nola egiten diren. Iker Casanova idazlea, Euskal Herriko historia politikoa kaleko komunikazioak izandako gar-

rantziak mintzatuko da. Markel Ormazabal herri mugimenduko kidea, kale komunikazioarako aukerak (berriak eta zaharrak) ezagutzeko ikuspegi zabaltzen lagunduko du. Urtarrilean zehar ere 3 saio ireki egingo dituzte gai honen inguruan dauden behar eta ikuspegi desberdinak mahai gainean jarri eta gogoeta egiteko. Hurrengoak urtarilaren 9an Nolako da Leitzako, zer-nork-nola komunikatzen dugu kaleetan? Ikuspegi desberdinak mahaigaineratu. Urtarrilaren 16an Iritzi desberdinen arteko elkar ulertzeaz.

Errigora arrakastatsua

Herrigora ekimenak arrakasta izan du aurtengo urtean. Lehengo urtea izan zen lehenengo aldia eta eskaria haundia izan zen. Aurten bigarren bezala antolatu dute "Nafar egoaldekoko uztaz, euskarari puzka" lelopean kanpainak eta Leitzan 100 saski eskatu eta zabaldu dira. Erribera inguruko produktuak osatzen dute saskia, ekoizleekin zuzenean egiten da harremana, produktu ekologikoak eta baldintza egokietan eginak eta auzolan erraldoiaren bitartez banatzen da. Gero, irabaziaren %25 nafarroko Hegoaldeko euskarari laguntzeko izaten da, aurten 1250 euroko uztaz jaso da gure herrian.

Su egur loteak banatu dituzte.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

50 herritarrek eman zuten odola

Azaroaren 26an odola biltzen duen Adonako autobusa izan zen arratsalde osoan herriko plazan. 50 herritar hurbildu ziren odola emateko. Gutxi gorabehera 50-60 izaten dira aldiro odola ematen dutenak eta aldi honetan 139 herritar deitu zituzten. Osasunbideko Nafarroko Odol eta Ehun Bankuak antolatzen du bilketa. Herritarrek elkartasun keinu bat eginaz eskaintzen dute odola eta ospitaletara, gaixoen beharrik hornitzeko bideratzen dute Adonakoek. Dirudiekin kopuru altua eta gaztea da gure inguruko odol-emateena. Hiru edo lau hilabetetik behin etortzen dira odola hartzera eta odol motaren behararen arabera egiten dute deialdia, batzuei edo besteei deituz. Ondoren pintxoak eta edaria eskeintzen diete odola eman dutenei.

Su egur loteak banatu dituzte

Bigarren urtean Udalak martxan jarri zuen etxeetara eramateko zerbitzua eta Alzuri enpresak hartu zuen egin behar hori. Aurten beranduago egin da banaketa. Udako lankeak pilatu egin ziren eguraldi txarra zela medio eta basolariak gainezka ibili dira, baino azkenean banatu dira etxeetan egur loteak. Eskaera gorantz egin du guztira 212 egur lote eskatu dute herritarrek. Guztira 166 etxetaraino eraman dira, 20 kargalekuan ezarri ziren eta beste 28 norberak ateratzeko mendian utzi ziren horrela eskatuta. Gainera, 4 gaitzegurra moduan eman dira. Egur lote bakoitza 5 tonakoa izaten da.

Sare sozialen erabileraz hitzaldia

Amazabal Guraso Elkartek eta Leiza-Goiizueta-Areso-Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak guraso eta irakasleei zuzendutako hitzaldia antolatu dute, *Nola jartzen dira harremanetan gure seme-alabak?* da izenburua eta sare sozialen indarkeria saihesteko helburua du. Abenduaren 11n izanen da, ostegunean 16:00etatik 18:00etara Institutuko liburutegian. Susana Manzanedo izanen da hizlaria.

Ba al zenekien

Kale edo bala... Baliaketa! lehiaketa abenduaren 26an, 22:00etan egingen dela zinean.



ARESO

KULTURA → OLENTZERO ETA ERREGEEN BISITAK IZANGO DIRA

Azaroko aste kulturala bukatuta Eguberrien esperoan orain

Urteroko ekitaldiek ez dute hutsik egingo

Juana Mari SAIZAR

Azaro bukaeran kulturaz blaitu ginen herrian. Mota guztietako ekintzak eta ospakizunak izan ziren eta esan behar da batzuk besteek baino arrakasta gehiago izan dutela, bakarren batzuk akaso eguraldi txarrak eraginda. Ostiral iluntzean Dabid Anauten *Euskararen Kate hautsiak* liburua- ren eta ondorengo dokumentalaren aurkezpena oso ongi irten zen eta baita segidan egin zen udaletxeko goiko solairuaren inagurazioa ere. Elkarriketa interesgarriak sortu ziren gai- ri lotuta eta badirudi jendea gauza berriak martxan jartzeko prest eta gogoarekin dagoe- la. Eaburutzen diren eta haien berri urte berri- rekin batera emateko modua izaten dugun. Larunbatean berriz, he-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Haurrentzako tailerrak, batukada taldearen kalejira eta bazkaria izan ziren larunbateko ekitaldietako batzuk.

rriko plazan eta herrian barna egitekoak ziren ekitaldi ugari, azkenean aterpean egin behar izan ziren. Besteak beste goizean egindako umeen jokuak eta mar- gotze tailerrak eta harri tira saioak. Iluntzean ba- tukada taldeak herrian

barna zabaldu zituen perkusio soinuak eta ta- lo goxoak jateko auke- ra ere izan zen. Hau idazterako orduan kon- tuak ez zeuden eginak baina jakitan da biltzen den diru guztia Ziburu- ko Kaskarotenea ikas- toleri emango zaiola.

Azaroa atzean utzi eta abendu erdialdera iri- tsita, eguberrietako kon- tuak ezin aipatu gabe utzi. Aurten ere Olen- tzero eta erregeen bis- ta eta eskolako haurrak kantuan entzuteko au- kera izango dugu dato- zen egunetan.

ARANO-GOIZUETA

Haurrentzako tailerrak abenduaren 28, 29 eta 30ean

TTIPI-TTAPA

Arano, Areso, Goi- zuetako eta Leitzako Euskara Zerbitzuak, aurreko urteetako ohi- turari eutsiz, gabone- tan haurrentzako tai- lerrak antolatu ditu. Hi- ru egunez eskainiko dute zerbitzua, biegun Goizuetan abendu- ren 29 eta 31n eta bat Aranon abenduaren 30ean. Goizeko 10eta- tik 13:00etara, haurrek primeran pasatzeko aukera izanen dute jo- koetan jolastuz, esku- lanak eginaz. Dindaia Fundazioak kudeatu- ko ditu tailer hauek. Al- dez aurretik izena ematea beharrezkoa da eta egun bakoitze- ko 5 euro ordaindu be- harko dira. Goizuetako eskolaren bitartez eginen da izen- ematea, baina kanpo- an bizi eta oporrak ber- tan pasatzen dituzten umeek ere izena eman ahaliko dute. Beste zenbait ekintzen arte- an, erakusketa bat ere egingo dute Aranon, Arano eta Goizuetako umeek Aranori buruz eskolan egin dituzten lanak bilduta.

Eguberri eta urteberri on!!

AINART
ILEA PAINDEGIA
Elbarren, 67 behea • LEITZA • 948 510 197

Ariztela
DEKORAZIO TAILERRA
Egubent on!!

OPARITU:

- ETXERAKO ARROPA, maindrek, koltsak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...
- INAUTERIEKAKO TELAK ETA EUSKAL JANTZIAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK: neurrira eskatzen ditugu, zure forma eta neurrira egokitzen direnak eta oso prezio onean

T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 13AN

Amaiurko Gazteluko pasabidearen bizker besta eginen dute

Heldu den urteko martxorako antolatu duten ekitaldia ere aurkeztuko dute larunbatean

TTIPI-TTAPA

Azkeneko zortzi urteetan gazteluaren historia lur azpitik ateratzen ibilki da Amaiurko herria, Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, Baztango udala nahiz Udalbide zein Udaltzaren laguntzarekin.

Aurten, berreskurapen bide horretan pauso handia eman dute, bertako bisita gidatuak antolatu eta bisitarien segurtasuna bermatzeko eraiki den pasabide itxurosoarekin.

Ondorioz, eta aurten go lanei akabila on bat emateko, gazteluko pasabidearen bizker besta antolatu dute abenduaren 13rako. Bertan, ekitaldi ttiiki eta anaiar-

teko bazkari batez gain, heldu den urteko martxoan herrian ospatu nahi duten ekitaldiaren aurkezpena burutuko da. Aipatu ekitaldia, Baztango Udala, Udaltzita, Aranzadi Zientzia Elkarte eta Amaiurko herriaren artean antolatzen dabilta.

Larunbateko bizker bestaren egitarauari dagokionez, 11:00etan kalejira abiatuko da herriko plazatik; 11:30ean prentsa agerraldia egingen da, orain arteko lan ibilbidea eta etorkizunerako proiektzioa eta martxoko ekitaldiaren aurkezpena eginez. 12:00etan bertsolariak ariko dira eta ondotik, bisita gidatuak. 14:00etan bazkaria izanen da Gaztelu elkartearen (Txartelak salgai Gaztelu ostatuan, 20 eurotan).

Oinez desfilea eta aurkezpena

Ehunka lagun bildu ziren azaroaren 29an Elizondoko Lur aretoan antolaturiko 2015eko Nafarroa Oinezaren eskual-



UTZITAKO ARGAZKIA

Seigarren mailako ikasleek hamabortz oin kontu zituzten, leloa irudikatuz.

de mailako aurkezpen ekitaldira.

Baztan Ikastolako zuzendari losune Ortega eta lehendakari Elena Zabaletak hitza hartu zuten. Ikastolaren historiaren metafora gisara, ipuin eder bat kontatu zuen Ikastolako zuzendari eta Haur Hezkuntzako andereño denak. Ikastolaren historia, ipuinean, zuhaitz baten landaketa, sortze eta haztearekin irudikatua zuen.

Ondotik, 33 urte eta gero heldu den urtean Baztanen egingen den bi-

garren Nafarroa Oinezaren helburuak azaldu zituen Ikastolako lehendakariak.

2015eko Nafarroa Oinezaren logoa eta leloa aurkezten dituen bideoa ere erakutsi zuten. Hautatutako leloa, *Hamabortz, ama bat da* eta ikurra, hamabortz puntuez koloreztaturiko oin bat. Leloa nahiz logoa gauzatzeko prozesua ikusi ahal izan zen bideoan.

Ekitaldiaren azken zatian, ehundik gora ikasleek, guratsok, amatek, ikasle ohik eta ki-

rolarik parte hartu zuten Oinezeko arropa eta osagarrien desfile koloretsuan. Batzuk desfilea bertzeak koreografia ederrak erakusten... Bakoitzak ederki gauzatu zuen bere zeregina.

Desfilea akitzeko, 6. mailako ikasleek, hamabortz oin kontu zituzten ibilgunearen erdian, leloa irudikatuz. Akabaila berezia eta zirraragarria izan zuen desfileak, tirolina batetik jaitsiz aita bat eta bere alaba agertu baitziren logoa eskuetan.

ABENDUAREN 12 ETA 13AN

Donbassekin elkartasun asteburua antolatu dute Askapena eta Ernaik

TTIPI-TTAPA

Gora herrien erresistentzia, Donbasetik ez dira pasako! goiburupean, Donbasserkin elkartasun asteburua antolatu dute abenduaren 12 eta 13an Askapenak eta Ernaik.

Ortziral arratseko 8etan Masacre en Kiev bideo emanaldia eskainiko dute Erratzuko lixutegian.

Larunbat goizeko 11etan Trebiñori buruzko hitzaldia eskainiko du Argiako kazetari batek Elizondoko Arizkunenean. 12:00etan elkarretaratzea egingen da Elizondoko plazan. Ekitaldiak akitzeko, bazkari begetarianoa egingen da Aise elkartearen (6 euro). Bazkarirako izen ematea: askapena.baztan@gmail.com



DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
AQUARIUM
Carlos Blasco de Imaz Plaza DONOSTIA
Tel +34 943 44 00 99



GIZARTEA → UDALAK

Tarifa sistema berria onartu du Giltxaurdi Kirol Instalaziorako

65 urtetik goitikoek eta pentsionistek bertze helduek bezala ordainduko dute

TTIPI-TTAPA

Giltxaurdi Udal kirol Instalazioko 2015ko tarifa sistema berria onartu du Udalak. Bi aldaketa azpimagarri daude. Alde batetik 65 urte goitiko eta pentsionisten maila desageritzen dela eta edozein heldu bezala kontsideratuko dituzte. Baina, bertze aldetik, hobari

berri bat onartu dute, Baztanen erroldatuta dauden urteko abonatu guztiei, familia unitatearen errenta kontuan hartuz hobariak eskainiko zaizkie.

Bertzalde, zeuden hobariak mantentzen dira familia ugaria, bi guraso abonatu izatea edo elbarritasunak kontuan hartuz eta urteko abonatua izanik deskontuak eskainiko dituzte instalazioko ekintzetan.

Informazio gehiago jasotzen ahal da Giltxaurdi Udal Kirol Instalaziotara deituz edo bulegoetara gerturatzuz. Tarifa eta hobari hauek urte hasieran jarriko dituzte indarrean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nekazaritza sektoreari buruzko gogoeta egin du Hazitik Hoziek

Hazitik hozie tokiko garapenerako taldeak antolatutik XXI. mendeko nekazaritza Baztanen gaiari buruz mahai-ingurua egin zen azaroaren 29an Elizondon. Julen Arburua Lekarozko Kortariko bordako nekazaria eta gasnagilea, Aitor Azkarate Anizko Jauregia esnekietakoa eta Ana Iriarte Arizkungo Baztango Xurie proiektuko bulkatzaileak, beren esperientziak eta ezagutzak baliaturik, moderatzaileak emandako hainbat konturi buruz aritu ziren: sektoreko belaunaldi ordezkapena eta lan-baldintzak, formazioa, herri-lurren egoera eta erabilpena, nekazaritza azpiegiturak, sor-markak, lehengaien eraldaketa eta komertzializazioa, kontsumitzaileen papera eta nekazaritzak gainerako sektore produktiboekin duen edo eduki beharko lukeen harremana eta bertze zenbait gai. Ondotik, hurbildutakoekin eztabaida irekia egin zen eta entzuleek beren gogoetak, galderak eta kezak plazaratu zituzten. Garbi gelditu zena, nekazal eredu bat agortu dela eta sektorea berritu eta indartzekotan denbora luzeko ikuspegiarekin lan egin behar dela. Horretako modu antolatu eta ordenatu batean lan egin eta eragitea beharrezkoa da. Bertzalde, abenduaren 16rako Hazitik Hoziek Baztango egitura ekonomiko-produktiboari buruz eta landa eremuetan erabiltzen ari diren estrategiei buruz mintzaldia antolatu du. Izaskun Abril Cederna-Garalurreko teknikaria izanen da hizlaria 19:00etatik 21:00etarat Elizondoko Arizkunenean.

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

BAZTAN

KULTURA → HAINBAT AURKEZPEN EGIN DIRA

Literaturarekin harreman berezia asteotan

Dolores Redondok 'Eskaintza ekaitzari' eta Elurre Iriartek 'Kirika FM bizi garen munduei begira' liburuak aurkeztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Irakurleen Taldeak ilbeltz hondararako antolatua duen Nobela Beltzaren Astearen esperoan, herrian literaturarekin harreman berezia izaten ari gara asteotan. Horren erakusgarri, azaro hon-

darrean eta abendu hasieran aurkeztutako bi liburuak.

Alde batetik, Dolores Redondo idazleak Baztanen kokatu duen trilogiaren hirugarren eta hondar liburua, *Ekaitzari eskaintza* aurkeztu zuen azaroaren 25ean Kasinoan eta jendetza bildu zen bere solasaldia aditzera eta idazlea bertatik bertara ezagutze-
ra. Gainera, estatu oso-ko liburu saltzaileak ere herrira hurbildu ziren.

Bertzetik, Elurre Iriarte Bañez arizkundarrak Xorroxin Irratiko *Ti-Ta* saioan egindako hausnarketa llaburrak *KIRIKA FM bizi garen munduei begira* liburuan bildu ditu Metaziri Ekoizpenak



Ba al zenekien

Elizondoko Eskola Publikoko Guraso Elkar-
teak antolatutako elikagai bilketan ehun ki-
lo janari bildu zituztela azaroaren 28 eta 29an
eta Udalaren esku utzi dutela. Abenduaren 1
eta 2an, berriz, jostailuak bildu zituzten eta
Iruñeko San Migel parrokiara igorri.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Dolores Redondo, bere azken eleberraren aurkezpenean Kasinoan.

eta horren aurkezpenean egin zuten abenduaren 2an Irurritako Jauregiarte Taberna Kulturallean.

Aipatzekoa da Nobela Beltzaren Astearen bertze ekitaldi ugarien artean, Mariano Izeta-

ren *Dirua galgarri*, eleberraren beltzen aitzindarietako bat berrargitaratuko dela.



UTZITAKO ARGAZKIA

4.010 euroko laguntza jaso du Xaulik Cenor enpresaren eskutik

CENOR etxeko tresna enpresaren eskutik 4.010 euroko laguntza jaso du Baztango Xauli elkarteak. Hain zuzen, Santiago Bideko VII. Golf Zirkuituan bildutako dirua Baztanera bideratu du. Elkarteko hainbat izan ziren dirua emateko ekitaldian eta bereziki eskertu zuten emaitza, alde batetik egoitza urpean gelditu baitzen azken uholdeetan eta bertzetik, dirulaguntza publikoak gero eta murritzagoak direlako. Xaulitik esker oneko solasak helarazi zituzte: «Emandako dirulaguntza eskertu nahi dugu eta aldi berean zonaldeko elkarte txikiei animatu beren proiektuak deialdi honetara aurkeztu dezaten. CENORri eskerrak eman nahi dizkiogu eta bereziki Elizondoko Elektrodomesticos Leiza-ri, bera izan baitzen deialdi honetara aurkezten animatu ziguna».

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

GIZARTEA → ABENDUAN

Baztango Mendigoizaleek hiru solasaldi antolatu dituzte

Erratzun, Iruritan eta Elizondon izanen dira

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleek Eguberrietarako solasaldi zikloa antolatu du aurten ere.

Abenduaren 19an, Erratzuko Etxelebert elkartean *Baztandik Bo-*

libiara solasaldia eskainiko dute Imanol Etxeberriak eta Ixa Kalderek, 20:00etatik aitzine-ra.

Abenduaren 23an, Iruritako Damaso Zabala Gizarte Bilgunean, *Suitza: harrizko teiatuak, elurezko gailurak* solasaldia izanen dute, Iban Larratxea, Jagoba Ramos eta Maria-no Eseberriren eskutik, 20:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskararen Egun arrakastatsua Baztanen ere

Euskararen Nazioarteko Egunaren harirat aurten ere hainbat ekitaldi antolatu dira abenduaren 3an ez ezik, hilabete guztian. Arizkunenea kultur etxean abenduan 3az gain, gainerako egun guztiak ere euskararen egunak direla gogorazteko oihala paratu du Udalak. Bertzalde, goizean Euskaigintzak antolatutako *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketan 339 lasterkarik parte hartu zuten. Ondotik sari andana banatu ziren parte hartzaileen artean. Arratsaldean, Euskara Batzordeak antolatuturik Asier Kidam magoaren ikuskizuna ikusteko Arizkunenea ttipi gelditu zen, hurrez mukuru betea magoak zer sorpresa eskainiko.

Abenduaren 30ean, *Natura, paradisu basa-*

tua solasaldia eskainiko du Iñaki Atxak Eli-

zondoko Arizkunenea Kultur Etxean.



HURBILEKO LANDA-MERKATARITZA PROIEKTUA

Hemen erosi,
eguberrietan ere



Finanztza Europar de Desarroio Mundu / Europa munda en finantzak / Landa Sarrearen ondorio europako herriak / Europa herri erakundeak / Europa herri erakundeak / Europa herri erakundeak

URDAZUBI

GIZARTEA → AZAROAREN 28KO UDAL BATZARRA

SOS Alkerdik elkarretaratzea egin zuen

Udalak ez zuen bere mozioa eztabaidatu, alkatearen erranetan lehendik onartua dagoelako

Iniigo IMAZ

Gure ondarea babes-ten!! lelopean ehun pertsona inguru bildu ziren gan den azaroaren 28an Herriko Etxearen aurrean. Gehienak urdazubiarrak, baina zenbait zurgarramurdiar eta baztandarren bat edo bertze ere hurbildu ziren Nafarroako ondarearen defentsan deituriko mobilizaziora.

19:30etik 20:00etara egin zuten elkarretaratzea, ondoren bildutako zenbaitzuk Herriko Etxean sartzea erabaki zuten, SOS Alkerdi Plataformak aurkeztutako mozioaren berri izateko. Andres Diharassarik eta Peio Etxeberriak sinatu arren, alkateak ez zuen gai ordenean sartu nahi izan, nahiz eta mozioak behar diren baldintzekin aurkezteko zinegotzien

laurdenak sinatzearekin nahikoa den.

Andres Diharassarik mozioa gai ordenean ez sartu izanaren arrazoiak galdegin zituen eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 91.4 artikulua aipatu zuen, premiazko gaiak batzarraren eztabaidatu daitezzen ahalbidetzen duela aldarrikatuz, zinegotzien gehiengoak hala erabakitzen badu.

Alkateak ez zuen sartu nahi izan, bere iritziz mozioan eskatzen den guztia egiten ari baita azaroan eman dituen lau ebazpenekin. Ebazpenen izenburuak irakurri zituen bertaratu ziren herritarren aurrean eta bere iritziz, eta bere hitzetan «mozioan eskatzen dena oso ondo dago, baina egina dago eta nahi baduzu bi aldiz onartu dezakegu, baina onartu da».

SALAKETA

Batzarra akitzeaz zegoelarik, Urtxume taldeko bozeramaileak galde erantzunen tartean Azkar taldekoei azken galdera bat luzatu zien: «egia al da bai zu eta bai zure taldeko zinegotzi-



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Udal batzarra hasi baino lehen elkarretaratzea egin zuten SOS Alkerdikoek.

ak ustezko delitu urbanistikoengatik inputatuak izan zaretela berriro auzitara eramanak izan zaretelako?».

Santiago Villaresek ukatu zuen inputatua izana, baina onartu zuen auzitara eramanak izan direla Azkar taldeko lau zinegotziak eta abenduaren 11an Iruñean deklaratu beharko dutela.

Segidan alkateak herritarrei hitza eman zien eta bertaratutako arretetik demanda jarri dutenen ordezkariak hartu zuen hitza. Bere erranetan, demanda ez da zibila, penala baizik, eta horregatik «bai, inputatuak zaudete». Tentsio oneak bizitu ziren Herriko Etxean, izan ere, aurreko demanda batean bere defentsarako diru publikoa erabili izana egotzi baitzion alkateari: «espero dut ez duzula aurrekoan egin zenue-na egingo, hau da, gai pertsonala den demanda baten kostuak Herriko Etxearen kontura ordaindu. Izan ere, aurrekoan 4.000 euro ordaindu zizkizun Udalak».



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Giro bikaina izan da Dantxarinako Euskal Kantu Zaharren XI. Egunean

Dantxarinako Peio Bentak antolatutako Kantu zaharren 11.en edizioa arrakastatsua izan zen. Eguerdian hasi eta gauerdia arte 460 pertsona bildu zituen bestak. Kantu zaharren bilduma bat oparitu zitzaion partehartzaile bakoitzari eta kantuez gainera, bertsolariak, dantzariak eta joaldunak aritu ziren (hauek ttuntturroa oparitu zioten Angel Mariezkurrena antolatzaileari). Bukaeran, Martikoko bortz produktu sorta zozketatu ziren.

Ugarana Emakume Elkarteak afaria Santalutzitan

Urtero bezela, Ugarana Emakume Elkarteak urteari agur esanzen dio zendutako jostunen eta bazkideen ome-nezko meza bat ospatuz. Meza abenduaren

13an izanen da eta Salbatore Elizan arratsaldeko 6etan. Hortik atera eta urteari akabaila emateko afaria antolatu dute. Menua 20 eurotan izanen da eta izena eman edota informazio gehiago nahi duenak Anaxtaxiren ostatuan galdetu beharko du.



6
LOTE
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com



627. ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onddo ta Punto
Modesto Sansiñena | **IRUÑEA**
• ARKUPE LOTEA
Aurea Arnal | **ELIZONDO**
3 LIBURU | Elkar argitaletxea
"Ausarta kluba" Kontxita Ordoki | **LESAKA**
"Zeurea da errua" Isabel Amorena | **ELIZONDO**
"Erlantzen izarra" M^a Jesus Sein | **ORNOZ-MUGAIRI**
PUNPALAPLAN DVDa | Urtxintxa Eskola
Maite Eraso | **ELIZONDO**
2 SARRERA | Irrisarri Land
Jose Ignacio Larrañaga | **BERA**
2 SARRERA | Donostiako Aquariluma
Maribi Odriozola | **ANOETA**



**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

**-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN**

eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

Informazio gehiago: TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 UESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

GABONETAKO SARIA

MARTIKO LOTEA, TXANTXARIAK DVDa, PAILAZOAK DVDa, GOSE CDa, M'C TXORRITA CDa,
HALA BEDI CDa, LIBURUAK: Nire txanoa, Letra txarra daukat eta zer?, Haral, Patricia traineruan,
Marizikina naiz, Annabel, Aurpegirik gabeko hiltzaileak, Axularren historiak, Afrikako hitzak,
Lauviaren gitarra, Bat denontzat eta denok batentzat!, Ingelesko nire lehen liburua, Printzesa txiztonzia



ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → GIZARTE ZERBITZUEK ANTOLATUA

Adinekoentzat tailer berezia eskaini dute aurten ere

Memoria eta bertze gisako trebetasunak landu dituzte, elkarriketa eta joko-ariketa batzuen bidez Mirentxu Goienetxerekin

ten eta Mirentxu Goienetxek eman du azaroan zehar, aste bakoitzean bi oreneko saioak eskainiz. Argazkian ageri denez, parte-hartzaile gehien gehienak emakumeak ziren.

Urteko azken aurreko mendi ateraldia egin du Atxuriak

Atxuria mendi taldeak bere azken-aitzineko ibilaldia egin zuen azaroaren 28an. Aldi huntan ibilaldi labur-errea egin zuten, Etxalartik Etxebertzeko-bordara, eta hain trankil gaki zirenez, uste gabea, bidean ondo pulit batzuk ere aurkitu zituztela erran behar da.

Urteko azkeneko ibilaldia abenduaren 28an egingen dute, usaia den bezala, Irundik Aiako Harrietara ganez.

Margari eta Koro

Gan den urteko gisan, aurten ere adinekoentzan tailer berezi bat eskaini da.

Bertan memoria eta bertze gisako trebetasunak landu dituzte, elkarriketa eta joko-ariketa batzuen bidez. Bere buruaz zerbaite gehiago ikasteaz gain, momentu goxo batzuk pasatzeko aukera izan dute.

Tailer hau Gizarte Zerbitzuek antolatu zu-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Tailerreko parte hartzaile batzuk, azkeneko egunean.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Denbora kaxkarxkoa zenez, Baxtanen-borda ondoko etxolako keizan gosaldia behar izan zuten.

JATETKEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GERTAERAK → ABENDUAREN 1EAN

Hamahiru urteko mutiko bat jo eta zauritu du auto batek Amotzen

Kolpearengatik zangarrean min hartu zuen eta Baionako ospitalerat eraman zuten

Franck DOLOSOR

Bideetan segurtasun aski ote da? Gidariak aski erne ote dira? Galdera hauek datoz berriz ere abenduaren lehenean 17:50ean, 13 urteko mutiko bat jo eta zauritu baizuen auto batek Amotzen. Istripuaren momentuan bidea zeharkatzeko pasabidean zegoen mutikoa, kolpearengatik zangarrean min hartu zuen eta Baionako ospitalerat eraman zuten. Sara alderat joaten zen 20 urteko gidaria senperrarra da. Jendarmeen ikerketaren arabera ez zen edana istripuaren momentuan. Tokia behar bezala argizatua dela segurtatu dute segurtasun indarrek. Ondoko egunetan urtea beteko da gisa bereko istripua gertatu zela Helbarrunen. Orduan 12 urteko mutikoa zendu zen.

Ez beharra laborantzian

Elkartasun kate zabala osatu da Felix familiaren inguruan sute batek beren etxaldea eta karabana osoki

suntsitu baititu. Istripuaren ondorioz, egoitzarik gabe gelditu dira laborari hauek. 500 metra karratuko borda desegin zuen suak. 300 ardietatik 30 hil ziren eta bertzeek ihes egitea lortu zuten baina kea irentsi zutelako garai batez ezin dute beren esnea saldu.


Saihesbidearen estrenan politikari andana bildu zen

2015eko departamenduko hauteskunde-entzain-kanpainaren usaina sendi zen azaroaren 24ean Senpereko saihsbidearen estrena ofizialaren egunean. Hautetsi eta hautagai andana bildu zen Georges Labazée departamenduko Kontseilu Nagusiko presidentearen inguruan. Pierre Marie Nousbaum auzapezarekin opariak eskaini zizkien saihsbideetik pasa ziren lehen gidariei. Ahatik, behin betiko bide seinaleak (agian elebidunak) ez dituzte oraindik plantan ezarri kontseilu nagusiak. Bidea urriaren 27an ireki zuten alta. 7 milioi eta 400 mila euro gasta da bide berria eta departamenduak osoki hartu du bere gain. Egunero 18.000 ibilgailu pasatzen ziren Senpereko karrika nagusitik, hauek 600 kamioi.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hautetsi eta hautagai andana bilduzen Georges Labazée departamentuko Kontseilu Nagusiko presidentearen inguruan saihsbidearen estrena egunean. Lehen gidariak opariak jaso zituzten auzapezaren eskutik.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Gerla Handiari buruzko erakusketa

Munduko lehen gerlari buruzko erakusketa agertu dute berriki herriko etxean. Senpereko familieek eta gudari ohien elkarteek eskaini gaiak eta oroigarriak erakutsi dituzte, bertzeak bertze gogoratzeko senpertar andanak bizia galdu zuela edo kolpaturik itzuli zirela. Senperen ere gerlaren kontrakoak egon zirela gutitan aipatzen da, alta aski ongi ageri da Matxin Irabola bertsulariak moldatu zituen bertsuetan.

SARA

GIZARTE → ABENDUAREN 21EAN

Idokiko ekoizleek merkatua eginen dute

Tokiko, sasoineko eta kalitatezko barazkiak plazaratu beharko dira

Joana GERENDIAIN

Abenduaren 21 larunabatarekin, Idoki ekoizleek beren eguberriko merkatua eginen dute polikiroldegian, goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte. Egun horretan eltzekari hobere naren lehiaketa iragaren da. Bi pertsonako taldeek parte hartuko dute, izenak abenduaren 15a baino lehen eman behar dira 0559372397 zenbakira deituz edo mailez contact@idoki.org.

Parte hartzea urrik

da, badira baldintza batzuk hala ere: barazkiek tokikoak, sasoinekoak eta kalitatezkoak (Idoki, bio) izan beharko dute, parte hartzaileek egunean berean merkatuan hautatutako produktu bat sartu beharko dute eltzekarian. Arratsaldeko 1etan ekoizle eta kontsumitzailek osatutako epaimahai batek sariak banatuko ditu, lehen saria apairu bat da 2 pertsonentzat Ortzaizeko "La ferme gourmande" jatetxean.

Lore ikastaldia

Eguberri kariatara Eskuen lana elkarteak ikastaldi bat proposatzen du lore buketa eta koroak egiten ikasteko. Ikastaldia abenduaren 18an, ostegunarekin, eginen da Lur Berri ge-

lan arratsaldeko 2etatik 6ak arte. Izena emaitzeko 0620331754 zenbakira deitu behar da. 25 euroko parte hartzea galdetua da, materiala eta loreak hornituak dira.

Olentzero

Abenduaren 21ean iluntsearekin Olentzero plazara jautsiko da Sarako haurrak ikustera. 3 eskoletako haur eta burasok ongi etorri ematen diote kantuek kantatuz eta ondotik herriko karriketan barna ibiliko dira musikarekin.

Urtats gaua

Pleka trinketeak urtats gaua ospatuko du abenduaren 31n, horretarako menu berezi bat proposatzen dute 40 eurotan: sartzean bieira



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mari Domingirekin etorriko ote da aurten ere Olentzero?

erreak urraza nahaske-ta batekin, ondotik idikia gibel errearekin onddo eta gratinatu batekin, gasna eta bukatzeko pastiza tikiak, kafea eta xanpaña kopa bat. Erreserbatzeko 0559542206ra deitu.

Kirol emaitza bikainak

Azaroaren 29-30eko asteburua ona izan da

Sarako kirolarientzat. Eskubaloian ekipa guziek irabazi dute, 13 urtez azpikoek 22-17 Angeluren kontra, 15 urtez azpikoek 21-8 Urruñaren kontra, 18 urte azpikoek 27-20 Lezousen kontra eta seniorrek 14-9 Senpereren kontra.

Errugbian lehenak irabazi du 28-3 Puyooren kontra, erreserbak 25-0 hango ekipak opor egiten baitu.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Gure besta herrikoietan jantzeko behar duzun guztia!

BASERRITAR JANTZIAK

- ♥ Jantzi osoak
- Emakumeak | Gizonak | Haurak
- ♥ Jantzi solteak
- Gonak | Galtzak | Baskak
- Gemurteak | Mariskak | Zopidak...

ABENDUKO ORDUTEGIA: 10:00-13:00 16:00-20:00
Larunbat arratsaldetan irekia



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA**

Eguberri eta urteberri on!!

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Kontaktatu b. 7 | LESAKA | 948 635 458

SORTZEAK

Elaia Aleman Etxenike, Gartzaingoa, azaroaren 7an.

Leire Maritxalar Ibarra, Sunbillakoa, azaroaren 27an.

Xuhare Merino Saralegi, Leitzakoa, azaroaren 3an.

Iwan André Aspirot, Sarakoa, urriaren 14ean.

Intza Sanchez, Sarakoa, urriaren 19an.

Enea eta Mahé Labarrère, Sarakoa, urriaren 22a.

Leina Amestoy, Sarakoa, urriaren 24ean.

Patxi Odeau Martinez, Sarakoa, urriaren 10ean.

Unai Petrissans, Sarakoa, azaroaren 11n.

Gexan Ollokiegi Mitxelena, Goizuetakoa, azaroaren 23an.

Anuk Erregerena Leizeaga, Zubietakoa, azaroaren 23an.

Jon Altzugarai Irigoien, Lesakakoa, azaroaren 16an.

Aitzol Vera Bereau, Iturengoa, azaroaren 24an.

June Telletxea Juanenea, Doneztebekoa, azaroaren 25ean.

EZKONTZAK

Jesus Mari Lareki Olano eta Edurne Etxart Irigoien, Zaldibi eta Berakoa, azaroaren 15ean.

Alexandre Louis eta Laure Napoléon, Sarakoa, urriaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Santiago Aiestaran Tapia, Lesakakoa, azaroaren 27an, 79 urte.

Günther Woischwill, Leitzakoa, azaroaren 25ean.

Yvette Madeleine Grave, Berakoa, azaroaren 25ean.

Pantxo Sathicq, Sarakoa, urriaren 14ean, 82 urte.

Maite Andiazabal, Sarakoa, azaroaren 15ean, 93 urte.

Genoveva Dainciart, Sarakoa, azaroaren 8an, 83 urte.

Esteban Ormart Garbalena, Gartzaingoa, azaroaren 30ean, 92 urte.

Vidal Malda Sansiñena, Berakoa, abenduaren 3an, 66 urte.



Juan Blas JAURENA ITURBIDE

Arizkumem, 2014ko urriaren 18an hil zen

Joan zara eta orain gure bizietan zerbait falta da. Zu gabe ez dela berdina izanen. Zu berriz ikusteko irrikiz. Ez zaitugu ahantziko.

BEÑAT, MAIALEN ETA OIHANA



M^a Josefa GANBOA JORAJURIA

Berakoa, 2011ko abenduaren 25ean

III. URTEURRENA

Zure begien dizdira eta expainetako irria beti gurekin egonen dira.

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa

Kontaktatu Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

HERRU KIROLA → AZAROAREN 27AN

Txingekin Euskal Herriko errekor berria egin du herrian Xanta Souzak

50 plaza eta 17 metro egin zituen Lesakako feria egunean

TTIPI-TTAPA

Xanta Souza lesakarrak, txinga eramaten berak zeukan Euskal Herriko errekor ofiziala hobetu zuen azaroaren 27an herriko ferietan, 50 plaza eta 17 metro eginenez (denera, 1.147 metro, 25na kiloko txingak

esku banatan zuela). Aipatzekoa da bi hilabete lehenago, irailaren 27an Barakaldon jokatu zen Euskal Herriko txapelketa irabazterakoan hobetu zuela aitzineko errekorra Xantak, 49 plaza eskas eginenez (48 plaza, hiru laurden eta 2,35 metro). Lehenagoko errekorra ere Brasilen jaiotako lesakarrak zeukan, 2012an Elizondon egin zen Euskal Herriko txapelketan 47 plaza eta erdi pasatxo egin baitzituen.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Xanta Souza, marka berria ezarri zuenean Lesakako plazan. Beheitian, Estitxu Almandoz ehun kiloko kopa harria altxatzen.

ESTITXU ALMANDOZEN MARKA PERTSONALA

Lesakako ferietako ohiko herri kirol jaialdiak bertze erakargarri berezi eta polita bazuen. Hain zuzen, Estitxu Almandoz herriko harrija-sotzaileak 100 kiloko kopa harriarekin egin behar zuen marka pertsonal ahalegina. Azkenean, bortz minutuko txandatan 17 altxaldi eman zizkion harritzarrari.

**PILOTA → NAFARROAKO BIGARREN MAILAKO SUB-22 TXAPELKETA**

Finala jokatu gabe txapeldun izan dira Lazkanotegi eta Aldabe

Alkasenaren osasun arazoengatik bertan behera gelditu zen azken partida


TTIPI-TTAPA

Nafarroako 22 urtez beheitiko bigarren mailako eskuz binakako pi-

lota txapelketaren finala jokatzeko azaroaren 29an Iruñeko Labrit pilotalekuan Bortzirak taldeko bi bikotek. Baina nahiz eta bi bikoteak Iruñera joan, Xabi Alkasena baigorriarraren osasun arazoa medio (ttikitatik urtean bitan edo izaten duen giltzurrunetako oinazearekin larrialdi zerbitzura eraman behar

izan zuten), azken partida bertan behera gelditu zen eta jokatu gabe txapeldun suertatu ziren Andoni Lazkanotegi beratarra eta Joseba Aldabe igantziarra. Zorionez, dagoeneko etxean dago Baigorriko aurrelari bizia.

Xabi Mendi, Alkasenaren atzelariak ere jaso zuen finalistaren domina. Txapeldunaren



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendi, Lazkanotegi eta Aldabe, sari banaketa tristetan.

dominak, berriz, (ezagutzen ez diren arrazoiengatik, txapelik ez baitzuten eman), Lazkanotegi eta Aldaberi eman zizkioten. Pilotariak kantxan erakutsi nahi zuten txapelketa osoan

eskainitakoa, gainera ez da egunero Labrit pilotalekuan jokatzetik izaten, jende gehiago ikusten, prentsa...

Baina lehenbizikoa osasuna da eta oraingorik horrela suertatu da.

HERRU KIROLA → NAFARROAKO TXAPELKETA

600 kiloko sokatira txapela ere lortu du Beti Gaztek

Amaiur azpitxapeldun izan zen eta mistoan Berrioizar garaile

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketako laugarren eta hondar saioa jokatu zen azaroaren 22an Lakuntzan. Larunbateko jardunaldian 600 kiloko azpitiko gizonetzko taldeek eta 550 kiloko talde mistoek hartu zuten

parte. Kategoria haue-tako lehen jardunaldian bezala, gizasemeetan Lesakako Beti Gazte eta mistoan Berrioizar nagusitu ziren. Hortaz, le-sakarrek, gizonetzkoen bi txapelak jantzi dituzte aurten. 640 kilokoan be-zala, Amaiur izan zen bi-garren eta hirugarren postua Berrioizarrek es-kuratu zuen, Txantrea-ren aitzinetik (640 kilo-koan alderantziz izan zen).

Beti Gazteko talde txapeldunean, Markel



UTZITAKO ARGAZKIAK

Beti Gaztekoak, 600 kiloko kategorian tiratzen eta txapelarekin.

Suarez, Karmelo Mitxelena, Julen Palenzuela, Iñigo Altzugarai, Beñat Oronoz, Mikel Apeztegia, Agoitz Altzugarai eta Pascual Taborerna aritu ziren. Beraz, 640 kilokoa irabazi zu-

en taldetik aldaketa ba-karra egin zuten eta Iñi-go Altzugarai sartu zen Oskar Telletxea igantzi-arraren orde.

Txapelketa mistoan, berriz, lehen jardunaldi-an bezala Berrioizar na-

gusitu zen. Honela, 6 puntu pilatu eta txapel-dun izan zen. Amaiur bi-garren izan zen bi saio-etan eta Txantrea hiru-garren. Emakumeen txapelketan Amaiur-Berrioizar izan da garaile.

PILOTA → LAU TERDIKO FINALA ABENDUAREN 14AN

Hamabigarren finalean aurrez aurre izanen dira Irujo eta Aimar

Orain arte lau terdiaren barrenean elkarren kontra jokatu dituzten hiru finalak irabazi ditu goizuetarrak

TTIPI-TTAPA

XXI. mendeko pilo-taren klasikoa errepika-tuko da abenduaren 14an Bilboko Bizkaia pi-lotaleku handian, lau ter-diko txapelketaren fina-lean aurrez aurre izanen baitira berriz ere Aimar Olaizola goizuetarra eta Juan Martinez de Irujo. Gaugerero, pilotari pro-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aimar eta Irujok indarrak neurtuko dituzte berriz ere.

fesionalak direnetik 38 aldiz aritu dira elkarren kontra (binaka, banaka nahiz lau terdian): Ibe-rokoak 22 aldiz irabazi du eta goizuetarrak 16tan. Baina finaletan estadistika hori iraultzen da: 11 aldiz aritu dira fi-naletan bata bestearen

kontra (3 binaka, 5 bu-ruz burukoan eta 3 lau terdian) eta Aimarrek 6 irabazi ditu (buruz bu-rokoak hiru) eta lau terdi-ko hiruak eta Irujok 5 (binaka hiru eta buruz buru bi). Pronostiko gar-birik gabeko finala iza-nen da oraingoan ere.

ABENDUAK 13-14

Bortzirietako binakako finalak Beran eta Arantzan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz bi-nakako pilota txapel-ke-taren finalak astebu-ru honetan jokatu-ko di-tuzte. Zehazki, abendu-aren 13an, larunbat goizeko 10etan hasita, Arantzako frontoian tti-kiak eta Umeak A eta B mailako finalak joku-tuko dira eta abendu-aren 14an, igande goi-zeko 10etan hasita, ki-muak B eta A, haurrak, kadeteak eta sub-22 mailakoak Beran.

abenduak 11 - urtarrilak 8

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



AMAIUR | 2014.12.13

Gazteluko pasabidearen bizkar besta

Gazteluan bisitarien segurtasuna bermatzeko pasabidea eraiki dute eta bizkar besta eginen dute larunbatean, hainbat ekitaldirekin.

Hitzaldiak



LEITZA | 2014.12.11

Sare sozialak eta seme-alabak hizpide Leitzako hitzaldian

Nola jartzen dira harremanetan gure seme-alabak? izeneko hitzaldia eskainiko du Susana Manzanedok institutuko liburutegian, 16:00etan hasita.

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2014.12.13

Santaluzia Egunean Zilarrezko Titarea eta eskulangileak

Eskulangileek euren lanak aterako dituzte eta horrez gain, meza ondotik, Zilarrezko Titarea banatuko dute. Aurten Blanca Bañaresek jasoko du.

ELIZONDO

Umorezko saioa

Abenduaren 18an
Bertze aldekoak Asisko Urmeneta eta Peio Etxekoparrekin, Arizkunenean 19:00etan.

LESAKA

Irribanda emanaldiak Pirritx eta Porrotzekin

Abenduaren 21ean
Irribanda ikuskizuneko bi emanaldi eskainiko dituzte Pirritx eta Porrotzek, Lesakako Musika Bandak, Abesbatzak... 17:30ean eta 19:00etan frontoian.

Hitzaldiak

ERRATZU

'Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapal-kuntzaren memoria'

Abenduaren 11n Dabid Anauten liburuaren inguruan, lixutegian, 19:00etan.

'Baztandik Bolibiar'

Abenduaren 19an Etxelebert elkartearen 20:00etan.

LESAKA

Goienar eta energia kooperatibei buruz

Abenduaren 17an 19:00etan, liburutegian.

Aitatasuna eta amatasunaz

Urtarrilaren 4an 15:30etik 18:30era Kultur Etxean.

Umeen maitasun beharra hizpide

Urtarrilaren 30ean Carlos Gonzalezekin, 18:00etan Kultur Etxean.

IRURITA

'Suitza: harrizko teilatuak, elurrezko gailurrak'

Abenduaren 23an 20:00etan Gizarte Bilgunean.

ELIZONDO

'Baztango egitura ekonomiko-produktiboa. Landa eremuetan erabiltzen ari diren estrategiak'

Abenduaren 16an Arizkunenean (19:00).

Helduen hezkuntzari buruz informazio saioa

Abenduaren 17an Arizkunenean (19:00).

Donbassekin elkartasun asteburuaren barne

Abenduaren 13an *Trebiño Argiako* kazetaria, Arizkunenean (11:00).

'Natura, paradisu basatia'

Abenduaren 30ean Arizkunenean (20:00).

LEITZA

Sare sozialen erabileraz

Abenduaren 11n *Nola jartzen dira harremanetan gure seme-alabak* hitzaldia institutuko liburutegian 16:00etan.

Antzerkiak

IRURITA

Helduendako antzerkia

Abenduaren 14an De-

sentxufatuak antzezla-na, 19:00etan Gizarte Bilgunean.

BERA

Uxanekoen antzerkia

Abenduaren 19an *Paxi, Alias Fraxku* Uxane taldekoen eskutik Kultur Etxean (20:00).

Ipuin-kontalariak

IRURITA

Ibai Esoaiekin

Abenduaren 28an Gizarte Bilgunean (18:00).

Ikuskizunak

Ospakizunak

DONEZTEBE

Santa Luzia Eguna

Abenduaren 13an Meza, eskulangileak eta Zilarrezko Titarea Blanca Bañaresi.

AMAIUR

Gazteluko pasabideko bizkar besta

Abenduaren 13an 11:00etan kalejira, 11:30ean aurkezpena, 12:00etan bertsolariak eta bisita gidatuak eta 14:00etan herri bazkaria.

Tailerrak

BAZTAN

Xaldun kortin, haurrekin euskaraz jolasteko tailerrak

Abenduaren 29an Amaiurko Herriko Etxean, 17:30ean.

Abenduaren 30ean Elizondoko Arikzunenean, 17:30ean.

GOIZUETA

Haurrentzako tailerrak

Abenduaren 29 eta 31n 10:00etatik 13:00etara

ARANO

Abenduaren 30ean

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Eguberriekin lotutako ospakizunak

Aurten ere ekitaldi ugari izanen dira eskualde osoan Eguberrien inguruan. Olentzeroren etorrera ospatuko dute herri eta ohikoa denez, Lesakan Olentzero eta Jaiotza lehiaketak ere eginen dituzte (argazkian). Ondotik, Urtezaharreko kalejirak eta urte berriarekin Errege Kabalgatak ere etorriko dira. Ongi pasatzea, beraz!



10:00etatik 13:00etara.

ARANTZA

'Birziklapena sustatuz musika tresnak sortu'

Abenduaren 29 eta 30ean 16:00etatik 18:00etara Baskulan.

Filmak/Bideoak

BORTZIRIAK

'Bortzirak uraren magaletan, euskararen bidean' dokumentala

Abenduaren 13an Arantzako Baskulan 19:30ean, Etxalarko Kultur Etxean 19:30ean eta Lesakan Kultur Etxean 19:00etan.

ERRATZU

Donbassekin elkartasun asteburuaren barne

Abenduaren 12an *Masacre en Kiev* bideo emanaldia, 20:00etan lixutegian.

DONEZTEBE

Zinema

Abenduaren 21ean *Lego* (16:30) eta *Need for speed* (18:30).

Abenduaren 26an *Glup, zabor biltzailea* (16:30) eta *X-Men, Dias del futuro pasado* (18:30).

Kontzertuak

DONEZTEBE

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 19an Donostiako Udal Txistulariak, Mendi Abesbatza, Agorreta Musika Eskolakoak eta Doneztebe-ko dantzariak, elizan 20:00etan.

GARTZAIN

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 20an Baztango Musika Eskola 17:00etan elizan.

LEITZA

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Negelak mugitzen dena ikusten du bakarrik. Hau da, geldirik bazaude dena beltz ikusten du, eta mugitzen zarelarik, orduan bai, orduan ikusten zaitu. Politikoez bezala, ez da hala? Politikoez ere mugitzen zarelarik bakarrik ikusten zaituzte. Azken lau bat urteotan, hamabortzean behin bizi garen urruneko, hurbileko eta barneko munduei buruzko gogoeta bereziak eskaini izan ditu Elurre Iriarte Bañez arizkundarrak Xorroxin irrati *Di-da* tartean. Gogoeta hauek irratitik errateko eginak ziren, laburrean. Ulertzeko aisa dira eta gaien tra- taera zuzena dute. Gogoeta horietatik abiatuta ira- kurterraza eta iradokitzailea den testu multzoa osa- tu dute, papererat ekarrita pilula ernaraztaile sor- ta. Guztira 59 testuk osatzen dute liburua. Azala Helena Xurio Arburuak egin dio eta barneko irudiak Amaia Zinkunegi Larrañagak egindakoak dira. Izas- kun Gutierrez Arruabarrena arduratu da diseinuaz eta Metaziri ekoizpenaz.

Musika



Lurra taldearen disko berria da *Akatsa sisteman* duten proiektuaren lana, hain zuzen. Lurra taldeak sistemaren akatsak zeintzuk diren ongi daki: gizatasu- na galtzea, inguruarekiko errespeturik eza, lukurreria jartzea bihotzen aurretik... Horiek partekatu nahi izan dituzte lan honetan. Jorrazten dituzten musika estiloak –beti akustikoak– zabaldu egin dituzte: indie-folk, world, blues, reggae, ragtime, ska, jazz, dub... Eta hainbat lagun kolaborazioa izan dute: Xabi Solano, Petti, Maite Neighbor, Jon Elizalde Jontron, Sergio Patxuko, Oskar Benas, Xabi Dols... Hamabi abesti ditu diskoak eta hitzak Anek eta Iñigok egindakoak dira eta kanten musika, berriz, Iñigok berak eta Car- los Zubikoa. Taldekideei dagokionez, Ane ahots na- gusia da, Iñigo gitarra akustikoarekin ari da, Carlos Zubikoa baxuarekin eta koroak egiten, Iban Larrebu- ru baterian eta Xabi Dols bateria zuzenean. Azaroaren 28an Berako Katakun kontzertua eskainiko dute.

Internet



Elkartasuna eta jasangarritasuna defendatzen di- tuen egitasmoa da Truke, kontsumo kolaboratibo- aren aldekoa, eta teknologiek ahalbidetzen duten eten- gabeko komunikazioan oinarritzen da objektuen berre- rabilpena sustatzeko. Trukearen bidez musutruk eman- dako gauzen bidez edo bigarren eskuko salerosketa medio, kontsumo ohiturak aldatu nahi dituzten herri- tarren komunitatea sortu nahi da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin abiarazitako proiektua da. Edozein pertsonak edo irabazi asmorik gabeko era- kundeez parte hartu dezake. Berrerabili daitekeen zerbait eskaini daiteke Truken: haur-kotxeak, sehaskak, jostailuak, mendi materiala, arropa, altzariak, etxe- tresna elektrikoak, liburuak, diskoak, artelanak, biziklet- ak... Aldiz, ezin izanen dira animaliak edo jatekoak eskaini, ezta emozionalki mingarriak izan daitezkeen objektuak edo legeak debekatzen dituenak ere. 2.000 euro baino gehiagoko prezioa duen deus ere ezin da saldu, baina truke eta oparirako ez dago balio mugarik.

Jeiki abesbatzaren kontzertua

Abenduaren 20an eli- zan, 20:00etan.

ELIZONDO

Poesia eta musika emanaldia kontzertua

Abenduaren 21ean *Nola belztu behar zuria* Arizkunenean (19:00).

BERA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 17an Isi- doro Fagoaga Udal Musika Eskolakoak Kultur Etxean (18:00).

GOIZUETA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 19an Umore Ona Abesbatza 19:45ean elizan.

IGANTZI

25. urteurreneko azkeneko kontzertua

Abenduaren 20an 20:30ean elizan.

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Abenduaren 14an Ne- gusario-Okoro-Erdiz- Negusarioi (08:00).

Abenduaren 21ean Lekaroz-Legate-Leka- roz (08:00).

Abenduaren 28an Arizkun-Auza-Arizkun (08:00).

DONEZTEBE

Errekaren ateraldiak

Abenduaren 24an Saioara irteera.

Abenduaren 31n Men- daurrera igoko dira (07:30).

ZUGARRAMURDI

Atxuria Mendi Taldearen irteera

Abenduaren 28an Aiako Harrietara.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00etatik aurrera. 636 880115.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomikoa. 646 774177.

DONEZTEBE. Etxebizitza salgai. Toki onean, pisu ederra da eta mobleztatua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, despentsa eta trasteleku haundiarekin. Balkoi ederra du eta eguzkitsua da. 697 846613.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LESAKA. Herrigunean dagoen 2 logelako pisu dotorea salgai. 70m². Sartzeko prest. Mobleztatua. Sukaldea eta egongela bateratua behoko suarekin. Berogailua gela guztientan. Balkoi eguzkitsuarekin. 139.000 euro. 686 937420.



pisua errentan emateko. Abenduan sartzeko prest. Deitu ikusteko eta solasteko. 678 947804.

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisu berria errentan emateko. Garajea eta trastelekuarekin. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. 450 euro. 600 418207 (Merxe).

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Eltzeetako plazan lur azpiko garajea salgai. 646 774117.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Altxate karrikan pisua lorategiarekin eta duplexa errentan emateko. Argitsuak, terraza eta balkoiekin eta berogailu zentralarekin. Guztiz berriak, estreintatu gabeak. 650 981950.

BERA. Altxate karrikan

LANA

eskariak

Neska euskalduna etxeko lanetan ariko litzateke, goizez, Barañain edo inguruetan. 699 244723.

Emakumezko bat interna bezala lanean ariko litzateke, adinekoak

zaintzen. 631 369825.

Euskaraz, frantsesez eta ingelesez hitz egiten duen emakumezkoa lan bila dabil. Bulegoko lanetan esperientzia handia duena, baita saltzaile lanetan ere. 687 832844.

BIDASOA ALDEAN gizonetzkoa lan bila: baserri lanetan, pertsona helduak zaintzen... ariko litzateke. 618 686388.

Gizonezko gaztea sukaldean laguntzaile, zerbitzari edo fregaderan lanean ariko litzateke eskualdean. 651 744490.

Doneztebeko 25 urteko neska euskalduna dendetan dependienta, adineko pertsonak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, sukalde laguntzaile edo administratiba bezala lanean aritzeko prest Malerreka - Baztan aldean. Kotxe propioa. 649 901395.

LANA

eskaintzak

IRUÑEA. Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako. Familia eta haurrekin. Hobe interna moduan. 610 542152.

Traktore batekin lan egiteko eskualdeko gaztea behar da. Traktorearekin esperientzia duena eta mekanikan zoezer dakiena. 658 015080.

ZERBITZUAK

zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Enkaku aurrekontuak konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritze - ARANTZA

ZERBITZUAK

denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordina
948 272011 (IRUÑA)
948 580975
Jaime Urutia 42-2.D - ELIZONDO

MOTORRAK

tailerrak

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Berdendeta, 6 BERA (NA)

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (=)

Zerri gizena
1,090 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,520 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,22
1.koa 4,02
2.koa 3,84
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,32
1.koa 4,06
2.koa 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,70/8,30
8-10 kilokoak: 6,50/7,20

salgai



salgai

A photograph of two Weimaraner puppies. One puppy is in the foreground, sitting and looking towards the camera. It has white fur with large tan patches on its head and ears. Another puppy is partially visible behind it, also looking towards the camera. They are standing on a grassy area with some fallen leaves, next to a metal fence.

salerosketak

**Gerezi egurrezko lo-
gela berria** salgai, guti

A photograph of a bedroom with two single beds, a nightstand, and a window. The room has light-colored walls and a wooden floor. The beds are made with white linens and blue pillows. A small table with a lamp is between the beds. A window is visible in the background.





SANTESTEBAN TAILERRAK

Bilakailez gero: 20070301 2.748.430.000 2.748.430.000 2.748.430.000 2.748.430.000 2.748.430.000

 12.400€ LAGUNA III EXPRESSION TOM-TOM 2.0 DCI 130 CV 2010 urtekoa - 74.000 km Nabigatzailea, 6 marcia, kilometroak...	 11.500€ MEGANE III EXPRESSION DCI 110 CV 2011 urtekoa - 54.000 km Nabigatzailea, 6 marcia, kilometroak...	 9.500€ MEGANE SPORT TOURER 1.5 DCI 85 CV 2010 urtekoa - 74.000 km
ETA GAINERA: CLIO III 1.5 DCI 70 CV - 4.900€ 2006 urtekoa - 131.000 km CLIO IV DYNAMIQUE DCI 90 CV - 13.950€ 2014 urtekoa - Km 0 KILOMETRO 0 eta prezio ezin hobekak!!!		



galdu-aurkituak

Garmin gps-a galdu du-
gu Malerrekan. Aurkitzen
duena sarituko dugu.
☎665 752336.



bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!

SARIDUNAK

2014ko abenduaren 4an, 09:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean, saritu beharreko 2 zenbakiak zozketatu dira

Saridunek mankomunitatera deitu behar dute (948 634 125 telefonoa) **urtarrilaren 9a baino lehen**.
Ordurako ez badira zenbaki saridunak agertzen, sariak eman gabe geldituko dira.

1.- Errekalde Ostatuak (Bera) 4 LAGUNENTZAKO OTORDUA
3706 zenbakia, Etxalarko Aldalurberea landetxeak banatua

2.- Oninart-ek (Lesaka) BUATXABAL MARKAKO 2 KAMISETA
4734 zenbakia, Igantziko Orbela Aseguruak banatua

Sustatzaileak:

ziurtagiriaren **elkartea**

baieuskarari.org





Babesleak:

ERREKALDE

OSTATUA

oninart



urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



AMAI A GOIAK urteak beteko ditu abenduaren 18an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat gure kontu-elearrari! Ongi pasa eguna!



TOTU gure baztandarrak abenduaren 27an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat gure diseinatzaile finari!



NAHIA GOMEZ RIBEIRO beratarak 2 urte bete ditu azaroaren 18an. Zorionak atta, ama, amaxi, ataxi eta osabaren partetik.



ZORIONAK eta urte asko gure printzesa **OIHANERI**. Abenduaren 22an 5 urte beteko ditu. Mila muxu familia eta batez ere anaia Julenen partetik.



ZORIONAK izeba **MIREN** eta osaba **ARKAITZ**! Abenduaren 13 eta 15ean urteak beteko dituzte. Muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki Leiane ilobaren partetik. Ongi pasa eguna eta afari goxoa prestatu.



EGOITZ GOÑI Oskotzek abenduaren 3an 8 urte bete zituen. Zorionak eta muxu potoloak Arantza, Oiz eta Ibarako familiakoen partetik. Zenbat opari hartu zenituen e!



ELENE LABANDIBAR Oronozek urtea bete du abenduaren 7an. Zorionak eta muxu pottolo bat sorgintxo Lesaka eta Igantziko familiaren partetik!



MAIALEN APEZTEGUI OLAIZOLAK abenduaren 5ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Gai-zuetako familiaren partetik.



A ze parea, karakola ta bareak! Zorionak ataxi **MANOLO** eta **EIDER**.



OLENTZERO eta gero... Zorionak! Ongi pasa eguna **ATTATTO**! Muxu haundi bat Nahia, Ekain eta amaxoren partetik!



ZUBIETAKO LUIA FAGOAGA BABAZEK abenduaren 14an 10 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama eta Egoi anaiaaren partetik. Muxu haundi bat.



LUIA FAGOAGA zubietarrak abenduaren 14an 10 urte beteko ditu. Zorionak ataxi, amaxi, izeba-osaba eta bereziki Eñaut lehengusuaren partetik. Ongi pasa eguna!



ARANTZAKO ANDER eta **SAIOA** ETXEGARAI MAIZEK abenduaren 14an eta 26an urteak beteko dituzte. Zorionak aunitz Berako eta Arantzako familiaren partetik!

ELGORRIAGAKO AIMARREK urteak beteko ditu abenduaren 14an. Zorionak bihurri zure 3. urtebetetzean familia eta bereziki ama eta ataren partetik.



DONEZTEBEKO ENAITZ GOÑI IGUZKIAGIRREK abenduaren 24an 4 urte beteko ditu. Zorionak familia guztia eta bereziki Aritzen partetik! 4 muxu haundi!



IRAIA SALABERRIA NARBARTÉ aranoarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 30ean. Zorionak Eneritz, aitaxo eta amaxoren partetik. Urtero legez zure urtemugan / natorkizula kantari / bertso kokor hau eskainirika / Iraia zutatz opari / sei urte ituzu sarri / gurasuen poxgarri / pixkortzen ai zea izugarri / bihotz erditik opa dizugu / zoriontasuna ugari.



ARANTZAKO IKERREK abenduaren 21ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxekoaren partetik.



ARANTZAKO IRAIA eta **IKER** AROTZENAK urteak beteko dituzte abenduaren 21ean. Aunitz urtez bikote. Ongi pasa eguna!



ARANTZAKO IRAIAK abenduaren 21ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxekoaren partetik.



Bi lagunentzat bazkaria
Sarrituak hilaren 31 baino lehen deitu behar da Bortxarriakako Hiri Hondakinen Mankomunitatera
948 63 52 54



ttipi-ttapa
UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIAK
KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net



2.500 FLYER A5 ↔ **143€**



5.000 FLYER A5 ↔ **165€**

KOLORETAN | DISEINUA BARNE | IMPRENTA BARNE | GARRAIDA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN

FLYER A5
Personalizatua
210 mm
148 mm

Eguberriak Martikorekin ospatu!



Martiko
Zalain Ind. z/g BERA
Tel. 948 625 016
Fax: 948 625 036
www.martiko.com
martiko@martiko.com



EGUBERRIETAKO DENDA ORDUTEGIA:

ASTELEHENETIK ORTZIRALERA:
08:00-18:00

LARUNBATAK
Abenduak 13, 20 eta 27:
09:00-13:00

ABENDUAK 24: 08:00-13:00

ABENDUAK 31: Itxita



Martiko®
Keztatuak

Xantelmar S.L.
Zalain Ind. z/g BERA
Tel: 948 625 156
Fax: 948 625 157
www.martiko.com



DESKONTUAK ZURETZAT MUSU TRUK



JARRAITU
NAFARROAKO
GAZTE TXARTELA
FACEBOOKEN

eskaintzetan egunera
egoteko. Eta laster
opari itzelak lortu
ahal izango
dituzu.



NAFARROAKO
GAZTE TXARTELA

carnejoven.navarra.es



Nafarroako
Gobernua